



ARGIA



ZAPATISMOAK 30 URTE

**Beste mundu bat
posible da, oraindik**

26-33. orrialdeak

#2.883 | 2024/09/08 | 4,00 €



**Bertakoentzat,
gentrifikazioa
eta bideozaintza**

12 | OLINPIAR JOKOAK



**"Ibrahimek ezin
dio konta amari
kalean bizi dela"**

16 | ISA EGIGUREN



**Basoa ez da oztopo
mugikortasun arazoak
dituzten haurrentzat**

34 | HEZKUNTZA

ARGIA EGUTEGIA 2025

Hurrengo urtean ere, egunero efemeride bat.

Herri xehearen historia ardatz hartuta, seigarren urtez ARGIAko egutegian efemeride historikoak landu ditugu. Historiografia ofizialak albo batera utzi ohi dituen pertsonekin, egungo mundua hobeto ulertzen lagunduko diguten gertaerak errepasatuko ditugu urteurrenak aitzakia hartuta. Eduardo Galeanok zioen bezala, “oroimen historikoa ez da iraganeko nostalgia hutsa, tresna bat da gaurko injustiziaren aurkako borrokan”.

Orrien aurreko aldeetan, berriz, data, euskal izendegia, eguzkiaren eta mareen informazioa eta jai egunen erreferentziak -arrotzak direnak, hala zehaztuta gainera-. 2025 on!



Aurre-salmenta:

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO IRUDIA: CGT

Iritziak

- 21 | MIKEL ZURBANO
- 22 | MALORES ETXEBERRIA
- 23 | MIKEL OTERO
- 23 | ARANTZA GUTIÉRREZ
- 24 | MATI ITURRALDE

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO
BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT

JOSU SANTESTEBA



16 | MIGRATZAILEEN EGOERAZ AITA MARI SALBAMENDUTIK

Isa Egiguren elkarrizketatu du Reyes Ilintxetak. Bolondres dabil komunikazio lanak egiten Itsas Salbamendu Humanitarioan eta Munduko Medikuek erakundearentzat ere aritua da. Migranteen etiketak erantzita ezagutu duena azaldu du.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL | BALUTXISTAN

Medailez gain, bideozaintza eta gentrifikazioa ere utzi dizkiete paristarrei olinpiar jokoek

Jenofa Berhokoirigoin

26 | POLITIKA | CHIAPAS

Altxamendu zapatistatik

30 urtera

Xalba Ramirez

34 | HEZKUNTZA

Mugikortasun arazoak dituzten haurrekin baso-eskolara: beldurrak eta mugak gainditzen

Mikel Garcia

38 | INGURUMENA

AEBetako Greenpeace desagerraraz dezake Dakota Access oliobidearen enpresaren salaketak?

Jule Ugartemendia

46 | KULTURA | RAKEL PARDO PEREZ

“Gakoa galdera da, galdera huts-hutsean”

Leire Vargas



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Julen Ugartemendia, Lander Arbelaitz,
Leire Artola, Manex Moreno,
Manex Usarralde, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Olaia L. Garaialde,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikokoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitatu
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da
testuentzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.



Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA





Ardura gabeko sarraskia?

Iazko irailean uholde latzak pairatu zituzten Bulgarian, Turkian eta, bereziki, Grezian. Txikizio hartatik urtebete igaro bada ere, egunotan hildako bi milioi arrain baino gehiagok inguratu dute kostaldeko Volos herria. Adituen arabera, iazko euriteek Karla aintzira bete zuten, 1962an malariaren aurka borrokatzeko saiakeran erabat lehortu zutena. Hala, ekosistema seguru bihurtu zen ur gezako arraintzat. Han ugaltu ziren, baina apurka-apurka aintzira ura galtzen hasi, eta drainatze-zanga lautadako ur-azalaren azpitik geratu zenean, urak indarra hartu eta arrainak itsasorantz eraman zituen. Kostaldera bizirik heldu zirenak hil egin ziren ur gazitan sartzean. Greziako muturreko baldintza meteorologikoen azken ondorioa da hondamendia, zientzialariek klima aldaketarekin lotzen dutena. Baina beste kudeaketa txar baten ondorio ere bada. Agintariek zuten lakuaren egoeraren berri, bazekiten arazoari aurre egin beharko ziotela, baina, hala ere, haien kezka nagusia izan da hildakoen kiratsak gune turistikoan eraginik ez izatea. Eta noski, hori ere ez dute lortu.

Solariak Araban egin nahi dituen eguzki-zentralak 25 dira, ez hiru

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Eusko Jaurlaritzako datuen arabera, Solaria Eguzki Sorkuntza SLU-k Araban eguzki-zentralak jartzeko egin dituen eskaerak 25 dira, hamabi herriri eragiten diotenak. Horietatik 24 dira 49,89 MW-ko potentzia edo gehiagokoak: denen artean 1.234 MW baino gehiago batuko lituzkete eta 3.455 hektarea lur baino gehiago estaliko lituzkete Gasteiz, Gorbeialdea eta Añana eskualdeetan. Argindar hori Bizkaira eramateko asmoa du Solariak, horretarako 100 kilometrotik gorako goi tentsioko linea eraikita. Hamasei elkartek manifestazioa deitu dute urriaren 26rako, Gasteizen.

Orain arte Solariak Araban aurkeztu dituen hiru eguzki-zentral proiektu aipatu dira hedabideetan: Zierbena Solar 2, 3 eta 4. Gasteizen, Zigoitian eta Erriberabeitia-Armiñonen eraiki nahi dituenak eta Zierbenako (Bizkaia) azpies-tazioarekin lotzeko 100 kilometro baino gehiagoko goi tentsioko linea egitea aurreikusten duena. Hauetako bakoitza 49,89 MW-ko potentziakoa litzateke.

Zertxobait handiagoak dira, bakoitza 49,895 MW-koak, Solariak Jaurlaritzan aurkeztu dituen beste 21 proiektu, guztiak "Zierbena Solar" izena daramatela dagokien zenbakiaren aurretik. Eta bada proiektu txikixeago bat, 36,99 MWkoa. PPko legebiltzarkide Ana Morales Peralek egindako informazio eskaerari erantzunez eman zuen honen berri Mikel Jauregi Letamendiak, Industria, Energia Trantsizio eta Jasangarritasun kontseilariak, uztailaren 30ean. Jaurlaritzaren

datuon arabera, 25 proiektuak egoera berean daude, "tramitazioan".

GUZTIRA 3.455 HEKTAREA BAINO GEHIAGO

Zenbateko eremua hartuko luke Solariak Araban egin nahi dituen 25 proiektu hauetako bakoitzak? Adibidetzat hartu dugu Erriberabeitia-Armiñonen eraiki nahi duen Zierbena Solar 2 proiektua, berau ikusgai baitago apirilaren 22ko datarekin Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA): 143,97 hektarea izatea dago aurreikusia (49,89 MW-ko potentzia luke). 25 proiektutik 24k potentzia hori bera edo zertxobait handiago izango dutenez, guztien artean 3.455 hektarea baino gehiago estaliko dituztela espero daiteke.

Arabako hiru eskualderi eragingo diote Solariaren 25 proiektu hauek: Añana, Gorbeialdea eta Gasteizi. Hamabi hiri eta herritako lurra, guztira.

Ramiro Gonzalez Arabako Ahalduen Nagusiak hedabideen aurrean zalantzan jarri zuen maiatzean orduan aipagai ziren Solariaren hiru proiektuen egokitasuna: argudiatu zuen ez duela zentzurik energia Araban ekoitzi eta Bizkaian kontsumitzeak, bioaniztasunari beharrezkoa ez den kaltea eragingo diolakoan.

Uztailean hainbat udalek alegazioak aurkeztu zituzten: hainbat dalek batetik, eta 50.000 alegazio baino gehiago hamasei elkartek, bestetik. Urriaren 26rako manifestazioa deitu dute Gasteizen, "erokeria gelditzeko". ●

Ultraeskuinaren gorakada Alemanian

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Errepublikan Federala 1949an eratu geroztik, lehenbiziko aldiz eskuin muturrak irabazi ditu eskualde mailako hauteskunde batzuk. Turingian gertatu da, herrialdearen ekialdean, Txekiar Errepublikatik gertu; bi milioi biztanle inguru ditu Turingiak –estatu federatu txikienetako bat da; Alemania osoan 83,3 milioi bizi dira–.

Alemaniar Alternatiba (AfD) eskuin muturreko alderdiak hiru botoetik bat jaso du Turingian, alegia, %33ko babes. Bigarren izan dira CDU demokristauak –Angela Merkel alderdia–, botoen %23 jasota. Saxonian –4 milioi biztanle–, berriz, alderantziz, CDU alderdi demokristauak irabazi ditu hauteskundeak, botoen %32rekin. Puntu bat gutxiago eskuin muturrak. Ozta-ozta, beraz.

HÖCKE: MUTURREKO LIDERRA

Björn Höcke izango da Turingiako agintaria, eskuin muturreko ordezkaria. 52 urte ditu eta, kurioski, Historia irakaslea da institutuan; kurioa, izan ere, gutxienez bi alditan kondenatua izan baita nazismoari loturiko kontsignak bistaratu eta hainbat lelo ia berdintsu erabiltzeagatik, "jakin gabe" eta "nahi gabe".

Höckek ez ditu lagun asko AfD-ren barnean. Gutxi Berlinen, Höcke "erradikalegia" dela uste baitute. Akaso lagun gehiago ditu Austrian. Austrian, bereziki, eskuin mutur identitarioko Neue Rechte-rekin du harremana, eta horko buruzagi Martin Sellner austriar faxista gaztearekin. Azken hori ere ikertu eta kondenatua izan da, nazismoko hainbat kontsigna erakusteagatik bere mitinetan.

Bermigrazioa defendatzen dute bai Neue Rechtek eta bai AfD; bereziki Höckek. Hau da, migratzaile ororen deportazioa, herrialde bakoitza "herritar autoktonoena" soilik balitz bezala. Lehenik, "legez kanpoko migratzaileak" kanporatu behar direla diote, premia bizia horretan dagoela argudiatuta; eta bigarrenik, herrialdean asentatuta dagoen etorkin oro, "herrialdearen izatea segurtatzeko". ●



Erriberabeitia 2020tik dagoen eguzki-zentral honek 55 hektarea hartzen ditu eta EAEko handiena da. Ia hiru bider handiagoa izango da Solariak eraiki nahi dituen 25 zentraletako bakoitza.

Desegoki(tuta)



UXUE APAOLAZA LARREA

railean hasten eta ekainean bukatzen dira, berez, nire zikloak (gure jartzera nindoan, baina plurala erabiltzen dudan bakoitzean ipotx batek oihera egiten dit buruan, “zureak izango dira!”), eta hala izan da nire bizitzan oporrak eduki edo ez, ordutegipeko lan ordaindua eduki edo ez. Ez urtebetetzeak, ez Urteberria, San Juan sua da meditazio aroari hasiera ematen diona. Azken egunetan, inguruan “zer moduz” galdetuta, erantzunak ez ziren lasaigarriak: “Umore txarrez nago duela bi astetatik”, “nahiago dut ez pentsatu astelehena iritsi arte”; “antsietatea daukat”; “goragalea”. Eta ez da denek uda ona pasa dutela. Eta batzuei, agian, gustatzen zaie beren lana. Batzuentzat, beharbada, lan horixe da beren hutsaltasuna mozorrotzen duen antzerki nagusia. Eta hala ere.

Horri bueltaka, paseoan, oraindik kezkatzen hasi gabe nengoen umea bistan ez edukitzeagatik: bizikletan ibiltzen ikasi du, nik ez daukat, beraz, bat ibilgailuan, bestea oinez ateratzen gara. Abiadura aldea izugarria da, bistatik galzten dut denbora guztian, paseoak, beraz, ez dira jada atsedendaldi kostunbristak, thrillerrak baizik. “Amaaaaa!”, eta bi andre korrika auto aparkatu batek estaltzen zidan indar zentrifugo baterantz. Banekien, noski, indar hori nire semea zela. Bizikletaren azpian zegoen, modu arraro batean korapilatuta. Mugitzen ez bazen, minik ez, gera zitekeen horrela, horixe esan nion gainera, “ez mugitu”, eta andreei, “ez ukitu” (“a, hemen zaude”). Arazo bakarra zen ezin zuela atera; eta horrek berak itotzen zuen (beste batzuk bizikleta gainean itotzen gara)(ez dut metafora egokia aukeratu, ziur; seguru, irakurle osasuntsu eta ez guztiz zaharra, bizikleta ibilgailu sinpatikoa zaizula oraindik).

Opor ondorengo sindrome bat asmatu ziguten, eta, berez, osasuntsuagoa dirudi gurpilera itzuli nahi ez duen hamsterrak hartara itzultzeko arazorik ez duenak baino. Baina beti gara desegokiak. Desegokiak dira ikasgelan kabituko ez diren haurrak (ea zenbaterik amaitzen duten aruten tratamenduan edo medikatuta ikasgelan kabitzekeo) eta gaztetxoak (“diberti” izeneko ikasgela batere ez dibertigarrian amaitzen dutenak, argi izan dezaten “normalak” ezetz, “nahi ditugun bezalakoak” gutxiago); desegokia da urte gehiegi betetzea; desegokia haurrik ez izatea; desegokia da beste nonbaitetik iristea; desegokia da gaixotzea beti egin duzulako zerbait gaizki gorputza gaixotu bazaizu; pobrea izatea da...

Ea lortzen dugun ahalik eta desegokiak (eder) jarraitzea, asko zauritu gabe, ekainera arte. ●



Erretiro adina atzeratzeak ez du konpentsatzen

URKO APAOLAZA AVILA

Erretiro-adina atzeratzeak ondorio kaltegarriak dakartza, ez bakarrik lehenago hiltzeko arriskua duen langilearentzat, baita diru-kutxa publikoarentzat ere: 8.564 eurotan baloraturiko galera soziala izango luke. "Ez du konpentsatzen", hori dio Ekonomia Aplikatuko Ikerketen Fundazioak, Fe-deak, Espainiako Estatuan argitaraturiko ikerketa batek.

Erretiro-adina atzeratzeko diskurtsoak eta erreformak etengabeak izan dira azken hamarkadotan. Orain, beranduago jubilatzearen ondorio kaltegarri batzuen berri dakartza ikerketak. 1967an egindako lan-erreforma batetik ateratako datuak erabili dituzte iker-tzaileek ondorio batera iristeko: erretiro-adina atzeratzeak lehenago hiltzeko arriskua areagotzen du, eta hori ekonomikoki ere kaltegarria da.

"Lan merkatutik irteteko adina urtebete atzeratzeak nabarmen handitzen du hiltzeko arriskua 60 eta 69 urtekoen artean", diote, eta arrisku hori handiago da, "lan fisiko, emozional eta mental estuagoetara" loturiko langileen artean. Gainera, "bizi-itxaropena murrizteak dakarren eragin kaltegarria etekin fiskalak baino handiagoa da". Zehazki, "kalitatezko" bizi-urte batek duen balio monetarioa aintzat hartuta, kalkulatu dute 0,46 urte lehenago hilez gero 8.564 euroko galera soziala ekarriko lukeela, aldiz, irabazi fiskalak 5.213 eurokoak lirarteke, beraz, eragina negatiboa da.

"Azken batean, erretiroa atzeratzeak eta pentsioen ordainketen iraupena murrizteak eragindako aurrezki-fiskalek ez dute konpentsatzen bizi-itxaropenaren murrizketarekin lotutako galera soziala, eta horrek iradokitzen du erreforma ez dela ekonomikoki onuragarria gizarte-ongizatearen testuinguru zabalenean", diote ikerketaren egileek.

Fundazioaren ustez "tentuz" diseinatu beharko lirarteke jubilazioarekin zerikusia duten politikak, eta jubilazioa aurreratu edo jubilazio partzialak hartzeko mekanismo "malguagoak" ezarri beharko lirarteke. ●

ANALISIA

Oskola eta mamia

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Iñaki Beraetxek esana Euskadi Irratian: "Uste dut Euskal Herrian akats larria egin dugula kontinenteei [itxurari] halako garrantzia emanik, eta *kontenidoa*-ri [edukiari] batere ez. Gauzak horrela daude hiriburuko guztietan, eraikuntza handiak egin diren lekuetan".

Donostiako Kurasaalak mende laurdena bete duenaren aitzakian, Beraetxeri galdetzea ea askotan egona den hor, inplizituki erretilian ematea da "proiektuaz zer iritzi duzu", euskarazko kulturgileen prekaritate maila zer nolakoa den jakinda eta, normalki, Beraetxe ez denean mutu geratuko. Bere erantzuna: "Gauzatxo batzuk egin ditut tarteka". Ondoren jaurti du goiko lerroetara ekarritako kritika. Kurasaalaz ez ezik, Tabakaleraz eta gauza gehiagoz ere ari zen.

Forma ugari har ditzake oskolak, baina guztiek dute, moldagarritasunak moldagarritasun, ezaugarri bera: azalekoa dela, kanpokoak, erakusten dena. Erakusleioa, oskola; eta dendaostea, mamia. Orok ditu bere oskol eta bere mami, baina atentzioa ematen du zein pisu hartu duen oskolak, eta nola gizarteak, geroz eta nabarmenago, horra jotzen duen.

Hondartza sasoi betean, ikusi nahi dituenarentzat, ondo asko bistaraten dira dendaostek: jubilatuen ehun metroko lasterketak, ur-izkinaren pareko lekua hartzeko, "onena" delako; kontagailu bat, lehen eguzkitako itzalkina nor eta noiz jarri duen erregistratzeko –tipo batek goizaldeko 5:36ean hartu zuen lekua hondartzan, eta ez, gizona ez zetorren parrandatik–, lehiaketa "graziosoa" omen; beste gizon bat metro erdi uretan sartuta, itzalkin eta guzti, eserita, garagardo lata eskuan, marea noiz jaitsi zain, lehen lerroan geratzeko; orokorrean kanpaldiak, literalki kanpaldiak, hondartzan... Eta argazkiak, argazkiak eta argazkiak. Instagram, Tik Tok eta enparau gehiago, erakusleio. Esateko hor gaudela, eta zeinen ondo gainera. Eguzkia hartzen egotea mundu guztiarentzat inoizko planik onena balitz bezalaxe...

Zenbaitzuek ez diote erakusleio masibo horri begiratu nahi. Zeuk, kanal horietan ez egotea erabaki baduzu, segur aski zure ezagun piloak –jakizu zergatik denak– aurtun Portugalen eta bereziki Azoreetan egon dira. Baina ez zara ikustetik libro: Teleberriak zertarako daude, bada, ez bada euskaldunak zeinen ongi bizi garen esateko?

Garai likidoak zetoze zioen Zygmunt Baumanek, eta arrazoi zuen, guztia da aldakorra, eta gehiago birakorra. Guztiak biratzen du oskolaren estilismoaren eta tendentziei lotuta, nahiz eta soilik oskola erakustearena ez izan gaur goizeko kontua. Agian aldatu dena da beste aldean dagoenak mamira jotzeko geroz eta interes gutxiago duela, eta tendentzia dela horretan geratzea, oskolean. ●



FOTO



56

udalerritan atzeman dute eltxo tigrea, EAEn. Espezie inbaditzaile hau duela hamarkada bat iritsi zen Euskal Herrira, eta asko ugaritu da hiri inguruetan, batez ere Bizkaia eta Gipuzkoako hiriguneetan, ura aurkitu dezaketen inguruetan.

230.000

migratzaile iritsi dira Kanarietara azken 30 urteetan, eta beste milaka hil dira itsasoan, iaz adibidez 6.007 lagun, Caminando Fronterasen arabera.

15.000

milioi eurokoa izan da 2023an Espainiako Gobernuaren gastu militarra, urteko aurrekontuan onartutakoa baino %30 handiagoa. Europako herrialdeen gastu militarra Gerra Hotzaren amaierakoa baino handiagoa da une honetan.

“Migratzaile irregularrak jatorrizko herrialdera itzultzea ezinbestekoa da”

PEDRO SÁNCHEZ

Espainiako Gobernuako presidentea.

2024-08-29



“INOIZ EZ DIRA 2023AN BEZAIN BEROAK IZAN OZEANOAK. MUNDUKO ARDURADUNEN ERABAKIEN ARABERAKOA IZANEN DA GEROA”

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA.

2024-08-27

“Botere publikoek orotariko erraztasunak ematen dizkiete immigranteei... zeina ongi iruditzen zaidan. Eta nazionalak?”

JESÚS PLANILLO

“Ez dut ezer musulmanen kontra”... baina mezetara gero eta fededun gutxiago joatea immigrazioarekin lotu du Cascanteko apaizak.

2024-09-01



TEKNOLOGIA

Kultur bideak



DIANA FRANCO EGUREN

Mexikoko Meridako lurraldean polemika handia izan da aurten, Poseidon jainko grekoaren omenezko eskultura bat jarri delako hondartzan batean. Merida Yukataneko penintsulan dago, non Maia herria bere kultura zaintzen saiatzen den, mundu osoko turismo masiboak bultzaturiko eraldaketa harri-pakari eta espekulatiboen baitan. Gauza da, Maia herriak baduela urari eta itsasoari loturiko jainko mitologiko bat: Chaac. Ez dut ezer Poseidonen kontra, baina ulertzen dut Maien haserrea, haiekin zerikusirik ez duen iruditeria euren diru publikoarekin eta espazio publikoan jarri delako, bertako kultura aitzindariari inongo arretarik jarri gabe. Horrelakoak gertatzen dira herrietako buruzagi eta langile publikoek abegirik ez dutenean tokiko kultura eta iruditeriarekiko, oraindik klasismoak jota dagoen herri batean. Izaera indigena ahaldundu beharrean, berriro ere bazterretara bultzatzen dute halakoek.

Eremu pribatura bagatoz, berdin gerta daiteke, baina eragina ez da zertan esanguratsua izan. Beharbada haur Maia batek Interneten, liburutegietako komiki mangan bidez... Japoniako kultura ezagutu du eta hango iruditeriaren zale amorratua bilakatu da, beste batek yoga praktikatzen du eta bere ametsa Indiara joatea da meditazioa hobetzeko... Eremu pribatuko esperientzietatik tokiko kulturaren eragin daiteke, baina eraginaren erritmoa motelagoa izango da, eraginik badu. Tokiko agintarien esku dago tokiko kulturak tokiko bizitzan on baterako duen balioa belaunaldi berriei ondo azaltzea. Gauzak ondo egiten badira, tokiko kulturak izango dituen eraldaketek bertako bizilagunentzako bizitza on bat izango dute erdigunean.

Hezkuntza edozein lekutan edozein momentutan eman daiteke, hurrek ere euren kontzientzia eta aukeramen dute, liluratzeko gaitasun handia dute. Eremu digitalean, liluratzeko aukera asko dago, Poseidon asko dago. Beharbada, guraso gisa, munduko errealitatea itxi ez, baina software librearen eta ezagutza komunitate irekien lanari esker, eskura dauden baliabideekin tokiko mundu ikuskera ulertzeko bidetxoak sortu ditzakegu eurentzako. ●

NAZIOARTEA



Bulldozer israeldarrek Jeningo kaleak eta dendak suntsitu dituzte.

ALAA BADARNEH

Jenin suntsitu du Israelek

JON HIDALGO

Israelek erasoaldi militar handia abiatu du Zisjordaniako hainbat hiriren aurka azken egunetan, eta sarraski handia eragin du, batez ere Jenin hirian eta hango errefuxiatu kanpalekuan. Hiriko agintari palestinarren arabera, kaleen %70 baino gehiago suntsitu du, metro eta erdirainoko zuloak eginez, eta ur garbi eta zikinen sistemako 20 kilometro lehererrarazi ditu. Al Jazeera-ren esanetan, 26 palestinar hil ditu gutxienez armada sionistak joan den asteazkenetik igandera, baina 50 dira beste iturri batzuen arabera, eta ehunka zauritu ere eragin ditu. Azken hamarkadetan ikusitako erasoaldi bortitzena da Zisjordanian.

50.000 pertsona bizi dira Jeninen, eta 20.000 inguru errefuxiatu kanpalekuan. Israelek setiatuta dauka hiria asteazkenetik. Aire erasoak egin ditu, eta lurreko inbasioa ere abiatu dute azken egunetan. Ura eta argindarra moztu ditu armada sionistak, eta laguntza humanitarioa sartzeari galarazi du, janaria eta osasun sistemarako beharrezko elementuak barne. Zigor kolektiboak eragiten aritea leporatu diote Israeli, biztanleria guztiaren aurka, eta "gerra krimena" dela ohartarazi dute hainbat eragilek.

Zisjordaniako bigarren intifadatik ikusi gabeko indarrak mobilizatu ditu Israelek. Nazio Batuen Erakundeak Israelen ekintzak gaitzetsi ditu, eta "suntsiketa handia" eragitea egotzi dio. Mugarik Gabeko Medikuek GKEak salatu du, osasunera sarbidea oztopatzeaz gain, anbulantziei berririaz eraso egin diela armada sionistak. Soldadu israeldarrek jipoitutako mediku boluntario batek salatu du

haiek lanean zebiltzan ospitalea inguratu duela armadak Jenin hirian, eta ematen ari ziren dialisi tratamendua moztu behar izan dietela gaixo ugari. Mugarik Gabeko Medikuek elkarteak ohartarazi du Israel ez dela okupatzaile gisa dituen ardurak betetzen ari.

Jenigo erasoez gain, Zisjordaniako Tulkarem, Tubas eta Nablus hiriak ere gogor kolpatu ditu Israelek. Etxeak leherrarazi, azpiegitura suntsitu eta kaleak hondatu dituzte soldaduek. Armadak egindako sarraskiez gain, kolono sionistek ere erasoak egin dituzte egunotan. Adibidez, Ramallah ekialdeko Burqa herrixkan sartu eta su eman dio kolono talde batek.

ERRESISTENTZIAREN ERANTZUNA

Zisjordaniako borrokalari palestinarrek ere zenbait eraso egin dituzte Israelgo armadaren oldarraldiaren aurka. Soldadu bat eta hiru polizia israeldar hil dituzte, eta gutxienez beste bat zauritu, armada sionistako iturriek baieztatu dutenez.

Palestinako Jihad Islamikoak "lehergaiak ekoizteko fase berria" hasi duela jakinarazi du, eta ohartarazi etsaiek "eragina ikusiko duela gudu-zelaian". Al-Quds Brigadako indarrek Tubasen, Tulkaremen eta Jeninen lehergailu ugari jaurti dituztela jakinarazi dute, eta soldadu israeldarrek hil dituztela, zenbat izan diren zehaztu ez badute ere.

Israelek ia 700 pertsona hil ditu Zisjordaniako urriaren 7tik. Garai berrean, 10.300 palestinar baino gehiago atxilotu eta bahitu ditu armada sionistak bertan. ●

Kolonialismoaren arrastoak ezabatzen hasi da Trinidad eta Tobago

 AXIER LOPEZ

Azken olatu dekolonialak bere bidea egiten jarraitzen du Abya Yalan eta Kariben. Kolonialismoarekin lotutako sinbologia aldatzen ari dira hainbat herrialdetan, eta horietako bat da Trinidad eta Tobago. Prozesu luzeago baten lehen pauso gisa, irletako presidentek jakinarazi du herrialdeko armarran ohorezko lekua duten Cristóbal Colónen lehen espedizioaren hiru karabelak –Niña, Pinta eta Santa María– ezabatzea.

1962an, Independentzia Batzordeak diseinatu zuen armarría, urte horretan bertan Erresuma Batutik atera eta independentzia lortu ondoren. Ontziak urre-koloreko bi kolibriren azpian daude, irlen irudikapen baten gainean. Azpian ondoko leloa dute ingelesez: "Elkarrekin ditugu asmoak, elkarrekin lortzen ditugu". Ontzien partez danbor metalikoak paratuko dituzte, Karibeko uhartean sortutako perkusio-instrumentua. "Gure konstituzioan ditugun aztarna kolonialak ezabatzeko bidean gaude", esan du Keith Rowley presidentek. Baliteke diseinu berria datorren irailaren amaierarako prest egotea eta, arrazoi logistikoengatik, gobernuak sei hilabeteko epea eman dio bere buruari aldaketa egiteko.

Ekimenak Caricom batzordearen sustengua du. Estatuaz gaindiko erakundea da, eta esklaboen salerosketagatik eta Europako metropoliek lurraldeak etengabe ustiatzeagatik justizia eta konpentsazioak lortzea du helburu. "Colónek ez gintuen deskubritu, uharteak populatuta zeuden bera iritsi zenerako", adierazi du Rowley presidente liberalak.

ALDAKETA GEHIAGOREN AURREKARI

Hiriburuko auditorio batean Cristóbal Colón eta garai kolonialeko beste figura batzuk eztabaidagai izan zituzten joan den astean. Parte hartu zuten bi dozenatik gora pertsonak, eta Internet bidez parte hartu zuten beste hainbatek, sinbolo eta izen kolonialak kentzearen alde egin zuten.



Colón plazan dagoen Colónen omenezko estatua, plakan ondokoa dioena: "Irlaren aurkitzailea".

Gobernuak bi uharteetako biztanleei galdetu die ea kolonialismoarekin lotutako monumentuak, ikurrak, kale-izenak eta bestelakoak kentzearen alde ote dauden eta hala balitz, espazio horiek nola ordezkatu.

Afrikar, europar eta jatorrizko herri-tarren ondorengoek parte hartu dute ekitaldian. AP agentziak jaso duenez, batzuek proposatu dute Puerto España hiriburuan dagoen Cristóbal Colón plazan dagoen Colónen omenezko estatua kendu eta museo batean jartzea. Beste batzuek suntsitu eta jendeari "bere gorpuzkiak zapaltzen" uzteko eskatu dute. Parte-hartzaile batek iradoki du kolonizatzaileen omenezko estatua guztiak elkartu eta "zitalen plaza" sortzea.

Aurreikusita dago eztabaidak jarraitzea izatea beste irlan, Tobagon; izan ere, gobernuak herritarren ia 200 proposamen jaso ditu balizko aldaketei buruz.

HERRIALDEAREN ARRASTO KOLONIALA, IZENEAN BERTAN

Karibeko Trinidad eta Tobago uharteek Venezuelako kostaldetik gertu dagoen nazioa osatzen dute. Espainiaren kolonia izan zen konkistatik 1797ra arte, orduan Frantziak hartu zuen kolonizatzailearen papera eta 1888an Britainia Handiak itsasoz haraindiko bere lurraldetzat hartu zituen bi uharteak. 1962an independentzia lortu zuen Britainiar Inperiotik,

eta 1976an errepublika bihurtu zen.

Egun Trinidad deritzon uhartea karibez populatuta zegoen konkistaren aurretik, eta kalugoak bizi ziren Tobagon. 1498ko uztailaren 31n iritsi zen uhartera Colon. Historialari batzuen arabera, Trinidad uhartearen izena Cairi (Kolibriaren lurraldea) zen espainiar kolonizatzaileak –tartean euskaldun asko, Colónen espedizio guztietan pisu handia izan baitzuten– iritsi baino lehen. Cristóbal Colónek "Tierra de la Santísima Trinidad" (Hirutasun Santuaren Lurraldea) deitu zion eta hortik geratu zaio izena. Uharteen "aurkikuntzaren" ondorengo egunetan, Venezuela inguruan zela, Colónek honako hau idatzi zuen bere eguneroan: "Lur hauek beste mundu bat dira, eta aberastasun handiak emango dizkiozte Gaztelako Koroari eta Kristautasunari, European atzera egiten dena, haietan hedatuko da".

San Fernandoko unibertsitateko irakasle Anarion Masonek azpimarratu duenez, arlo askotan txertatu behar da ikuspegi dekoloniala herrialdean. Adibidez, herri eta hiri askok indar kolonialek emandako izenak daramatzate oraindik, adibidez Puerto España hiriburua, San Fernandok edota Scarboroughhek kasu; edota ikasketan planak Erresuma Batuko historia, literatura eta arau kulturalak azpimarratzen jarraitzen du, askotan "bertako historia propio eta aberatsaren kalterako". ●

MEDAILEZ GAIN, BIDEOZAINZA ETA GENTRIFIKAZIOA ERE UTZI DIZKIETE PARISTARREI OLINPIAR JOKOEK

Olinpiar Jokoek eta Paralinpiarrek dakarten "festa" gutxietsi gabe, kostu sozial, ekologiko eta ekonomiko izugarria eragin dutela dioten ahotsak ere badira, entzun nahi izanez gero. Horretan dabilta Frantziako Legebiltzarretik, LFI Frantzia Intsumisosa alderdiko hautetsiak eta karrikatik, ehun bat elkarte eta sindikatu biltzen dituen Le revers de la médaille [Medailaren ifrentzua] kolektiboa. Alde sozialari begiratu eta hiru ondorio nagusi azaleratzen dabilta: eragindako etxegabeen kanporaketak, ondorioztatu gentrifikazioa eta algoritmo bidezko kontrol soziala.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Bukatu da festa handia, bukatu dira Parisen iragandako Olinpiar Jokoak, eta "bozkario popularra" azpimarratu da balorapena egiterako orduan. Berez festa ez da bukatua, printzipioz hitzorduaren erdibidean beharko genuke, Olinpiar Jokoak bukatu eta Paralinpiarrek hartzen dietelako segida. Baina hain dugu kapazitismoa oinarrian, non eta bigarren parte horri ez zaion kasik inportantziarik, arretarik eta aipamenik bideratzen.

Emmanuel Macron presidenteak bere politika hauspotzeko eta bere kontrako kritikak deuseztatzeko baliatu du kirol hitzordu nagusi hori: "Erran nahi dizuet zenbat harro nagoen frantsesez. Galtzaile bat dago: porrotaren espiritua. Badu zazpi urte Olinpiar Jokoak hartzea zoroa zela azaltzen zigutela guztiek; Sena ibaiaren gaineko irekiera ekitaldia segurtasunari begira arduragabeke-ria ziurra zela; inoiz ez genuela domina

nahikorik irabaziko; zulo finantzario bat izango zela; Sena ibaian ezingo zela bainatu... Eta azkenean lortu da, egin dugu!". Horra balorapen orokor ofiziala, nagusiki zabaldurikoa: alde orotarik baikorra da emaitza.

Alta, uda giroa uda-girotzeko eta egunerokoaren zama arintzeko hitzordu honek herritarrengan duen eragina gutxietsi gabe, Olinpiar Jokoen eta Paralinpiarren itzalguneak ere bistarazi nahian dabilta herritar batzuk. Sozialki, ekologikoki eta ekonomikoki eragindako kalteak hor dira eta horiek neurtzeko ikerketa batzorde popular bat osatu berri du LFI Frantzia Intsumisosa alderdi ezker-tiarrak. Kirol arloko eragileak, kolektibitateak, sektore publikoko zerbitzuak eta erabiltzaileak, herritarrek, bazterketa-aren aurkako aktibistak... guziekin bildu eta azterketa mamitsuago bat azalera-tuko du LFIk. Gozoaz gain, gazitik ere duelako kirolarien eta kirolzaleen hi-

tzorduak: "2024ko Olinpiar Jokoen irudi miresgarriaren ondoan, tonaka umek ezin dute kiroltik egin".

14.000 ETXEGABE KANPORATUTA

Le revers de la médaille [medailaren ifrentzua] izeneko eragilea dabil Paris eta bere inguruetatik kanporaturiko etxegabeen kopurua osatzen. 2023ko maiatzetik aurtengo ekainera, zehazki 12.545 lagun kanporatu dituzte Olinpiar eta Paralinpiar Jokoen eremutik -14.000 lagun, uztailean kanporaturikoak kontuan hartuta-. 104 kolektibo, elkarte eta sindikatu biltzen ditu Le revers de la médaille taldeak eta tartean dira, besteak beste, gosetearen aurkako Action contre la Faim, LDH Giza Eskubideen Aldeko Liga eta etorkinen alde dabilen La Cima-de elkarte ezagunak. Xeheki aritu dira kanporatze bakoitza zenbatzen, kanporatze-ordenantza ofizialak ikertzen eta lekukotasunak biltzen. Frantziako beste



MAKROERAIKUNTZAK

Paris inguruko espazio berde andana suntsitu dituzte Olinpiar eta Paralinpiar Jokoetarako azpiegiturak eraikitzeko. Tartean, Aubervillierseko baratze kolektibo ezagunen zati bat.

REPORTERRE/INOMAN

eskualdeetako urgentziatzko aterpetze zerbitzuetara bidaliak izan dira ia erdiak -5.600 lagun-. Baina, kasu: aste bakar batzuentzako balio izan du aterpetze soluzioak, eta bistan denez, karrikan segitzen dute orduz geroztik, oro har leku eskasa badutelako urgentziatzko zerbitzu horietan.

Frantziako Estatuko beste hiri batera bidalitako 5.600 horien profilari so egin eta Frantziako Gobernuaren harrera politika eskasarekin egiten dugu topo. Denak dira etorkinak eta horietarik %40 papergabeak izanik egonaldi baimenaren eskaera egitera bultzatu dituzte -estatutik kanporatuak izateko arriskua bizkortuta, paperak lortzeko baldintzak geroz eta gogorragoak direlako Frantziako Estatuan-.

Inguruko hirietara bideratuak izatea errefusatu dutenak ere badira: horietariko 1.300 Pariseko zerbitzuetan aterpetu dituzte baina 30 egunentzat soilik,

Sozialki, ekologikoki eta ekonomikoki eragindako kalteak neurtzeko ikerketa batzorde popular bat osatu du LFI Frantzia Intsumisoa alderdi ezkertiarak

eta adin ttipikoak kirolegietan metatu dituzte -horientzat ere, aste bakar batzuetarako aterabidea izanik-.

Horiek horrela, Pariseko karriketatik kanporatu ondoren benetan berriz aterpeturikoen kopurua 216koa da: %1,5

inguru. "Euri tanta bat", Le revers de la médaille kolektiboaren hitzetan; baina "Olinpiar Jokoen eragin humanoa", Macronen hitzetan.

"Aitzineko Olinpiar Jokoen gisara, karta postalean kabitzen ez direnak bazter utzi dituzte Parisekoek ere. (...) Penagarria da ikustea hiriaren errealitatea eta bere baitako pobrezia gordetzeko joera hori. Tapizaren pean gorde eta ez zaio begiratzen", dio Antoine De Clerck Refugee Food taldeko militanteak. Iritzi berekoa da atleta ohi eta ikerlari Jules Boykoff amerikarra ere. Olinpiar Jokoe-tan aditua da eta hitzordu horiei harrera egiten dieten hirietan egon ohi da, sozialki eragindakoa ikertzeko. Dioenez, gisa horretako hitzorduek ondorioztaturiko gentrifikazioa saihestezina da. Olinpiar eta Paralinpiar Jokoak hartu dituen Seine-Saint-Denis departamendua Frantziako txiroena da eta herritarren %28,4 pobrezian bizi da.



ETXEGABEAK GORDEZ

Orotara 14.000 etxegabe kanporatu dituzte Joko Olinpiar eta Paralinpiarren eremutik. Argazkian, politika hori salatzen duen kanpaldia, Poliziak laster gogorki erreprimutakoa.

DROIT AU LOGEMENT

GENTRIKAZIOA, SAIHESTEZINA

Saint-Denis hirian eraiki dute, demagun, kirolarientzako auzoa, 9.000 paratletentzako eta 14.500 atletentzako aterpeak. Anarteko etxebizitzak dira, baina udazkenetik aitzina, obrei lotu eta etxebizitza egonkor bihurtuko dituzte, orotara 2.200 bizitoki berri proposatuta. 7.000 eurotan salduko da metro koadroa, berez 4.000 eurotan delarik gaur egun bertako metro koadroa. Hots, hein handi batean etorkinek eta langileriak osaturiko bertako biztanleriarentzako eskuraezinak izanen diren etxebizitzak utzi dizkie kirol arloko hitzordu famatuak. Eskaintza horrek biztanleria berri bat ekarriko du, eta funtsean, jadanik nabari da, ikusirik %30-%40az emendatu direla azken bost urteetan Saint-Deniseko etxebizitzaren prezioak.

Atletentzako auzoaren gisara, beste azpiegitura andana eraiki dute. Leku-ko espazio eta bizi dinamiketan eragin dute, orain artekoa erabat bestelakotuta: zazpi hektareako Aubervillierseko baratzeko kolektiboaren parte bat desagertu da Olinpiar Jokoen igerilekua eraikitzeko; Dugnyko parkea betoiez estali

—

“Hiria birkonfiguratu da higiezinaren kapitalismoa. Diru anitz xahutu da, biztanleak kontsultatu gabe. Inbertsitzaile pribatuei egingo die mesede, eta ez biztanleei”

Jad Lindgaard

dute, kazetariarentzako auzoa eraikitzeko –eta hiru eskola, hotel bat, bi bizitoki eta hemeretzi enpresa desaginda–...

"Olinpiar estraktibismoa" izena jarri dio prozesu urbanistiko horri Seine-Saint-Denisen bizi den Jad Lindgaard kazetariak: "Estraktibismoak meatzari-

tza edo petrolio industria bati egiten dio erreferentzia. Lurralde pobre batean, lurretik baliabideak ateratzen ditu, gero nazioarteko merkatuetan balorizatzen. Balio finantzario horrek industriari egiten dio mesede, eta ez bertako ekosistema suntsitzearen prezioa ordaintzen duten biztanleei. Paris 2024rako, higiezinaren kapitalismoa hiria erabat birkonfiguratu da. Diru anitz xahutu da, epe azkar batean, biztanleak kontsultatu gabe. Kontua da inbertsitzaile pribatuei egingo diela mesede, eta ez biztanleei. Salduko diren etxebizitzak Seine-Saint-Denisen dauden pertsona gehien-gehienentzat eskuraezinak izango dira, bankuetako kredituak eskuratzeko aukerarik ez dutelako. Arazo bat da, justizia sozialari dagokionez". *Paris 2024. Une ville face à la violence olympique* (Paris 2024. Hiri bat, olinpiar indarkeriarekin parez pare) liburua atera berri duela, elkarrizketa eskaini dio *Reporterre* komunikabide independenteari.

ALGORITMOEN KONTROLA

Lekuko biztanleriarentzat pentsa-



FESTA HANDIA Olinpiar eta Paralinpiar Jokoek duten irudi oso positiboa eta antolatzaile den Nazioarteko Olinpiar Batzarrak duen botere finantzarioa direla eta, ekimen horri buruzko irakurketa kritikoa zabaltzea zaila dela dio Jad Lindgaard kazetariak.

GROSCLAUDE ALAIN / KMSP

tu gabeko azpiegitura horien antzera gelditzeko etorri zitzaizkien kamarak eta irudien arakatzeko algoritmoak. Zainketarako teknika hori legezkatzen duen Europar Batasuneko lehen estatua da Frantzia. Zehazki, algoritmoei uzten zaie irudien kontrola eta kasu honetan, zortzi fenomeno identifikatzeko ardura: aurkako norabiderako mugimendua; gune debekatu batean sartzea; arma baten presentzia edota erabilera; sute baten abiatzea; jendepilaketan mugimendua; pertsona bat lurtean; jendetza handiegia; eta pakete abandonatua. Identifikatuz gero, alerta bideratzen dute algoritmoek. Esperientazio bezala aurkeztu dute, eta Olinpiar eta Paralinpiar Jokoak pasa ondotik ere bideratuko dute "kirol hitzorduetan,

manifestazio kulturaletan eta aisialdi uneetan", behintzat 2025a arte. Arlo numerikoa eta giza eskubideak aztertzen dabiren La Quadrature du Net elkarteak kezkatzen da: Olinpiar eta Paralinpiar Jokoentzako pasatako lege hori "Troia-ko zaldia" da, geratzeko eta jendartean orokortzeko etorritakoa.

Giza eskubideen eta askatasunen aurka doan teknika dela dio elkarteak, hain zuzen, giza jarrerak arakatzeko dituelako. "Gure bizietara sartzeko urrats bat gehiago da, teknologia geroz eta intrusiboagoekin dabilta. (...) Azken urteetan Poliziaren zainketa-boterea geroz eta gehiago zabaltzen dabilta Frantziako autoritateak. Kamera gehiago, drone gehiago eta orain algoritmoak. Kezkatzen gara agian ondoko urratsa

aurpegi ezagupenarena izango delako. Eskubideen aurka doa hori", dio Amnesty Internationaleko Katia Rouxek.


Azkenean Jokoz Joko, gauza bera dugu: gertakizunak sorturiko euforia eta kameraren fokutik bazter, berriz, kalte sozial eta ekologikoak. Parisen salaturikoa, salatu zuten Tokion, Rio de Janeiron, Londresen... eta salatuko dute Los Angelesen hemendik lau urtera. Saihestezina dirudien fatalitate hori "memoria militantearen transmisioezari" lotzen du Lindgaard kazetariak, baita Olinpiar eta Paralinpiar Jokoek duten "irudi oso baikorrari" zein CIO Nazioarteko Olinpiar Batzarrak munduko elkarerik aberatsena izateari ere: "Indar harremana ez doa herritarren alde". ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegioptika.com





AHLEM
∞



LIBIAKO KOSTAZAINEN ETA MAFIAKOEN ARTEAN EZ DAGO ALDE HANDIRIK



Kazetaria eta giza eskubideen defendatzaile sutsua. Munduko Medikiak, Apoyo Mutuo edota SHM gobernuz kanpoko erakundeekin lan egin izan du boluntario eta kazetari moduan. Hainbat komunikabidetan hamaika erreportaje plazaratu ditu Greziako Chios irlatik, hala nola Mediterraneoko salbamendu misioak erakusteko. Uztailean, lehen aldiz, Aita Marin izan da, 34 pertsonaren erreskatean.

 REYES ILINTXETA  JOSU SANTESTEBAN / ARGIA CC BY-SA

Zergatik ikasi zenuen kazetaritza?

Oso ikasle txarra nintzen. Turismoa nahi nuen egin, baina ez nuen nota nahikorik. Saiatu nintzen EHUn kazetaritzan sartzeko eta ez nuen lortu. Orduan gurasoek Iruñera bidali ninduten ikastera, Opu-seko unibertsitatara. Aldaketa itzela. Ni garai hartan, gainera, heavy nintzen eta lagun batek esan zidan Iron Maideneko kamisetarekin eta praka estu haiekin ez nintzela sartuko, baina sartu nintzen eta hemen gelditu nintzen bizitzen.

Kazetaritzarena ez neukan oso garbi, baina gerrako kazetariekin zerbait berezia izan dut betidanik. Miretsi egiten ditut, baina ez naiz horren ausarta. Ba-

ditut lagun batzuk halako lanetan, Mikel Aiestaran, adibidez, eta izugarritzko inbidia ematen didate.

Gerra erreportari ez baina giza eskubideen alde lanean beti?

Bai, hala da. Azken urteetan hainbat lan eta bidaia interesgarriak egiteko aukera izan dut eta oso pozik nago horrekin. Munduko Medikuekin aritu nintzen hainbat urtez komunikazio atalean. Oso proiektu ausartak ari ziren garatzen garai hartan, prostituzioaren inguruan, adibidez. Oso mundu interesgarria da eta oso zikina, aldi berean. Munduko Medikiak klubetara joan eta han for-

makuntza ematen hasi zitzaizkien emakume esplotatu hauei. Konfiantzazko harremana sortu zuten haiekin eta askori lagundu zieten mundu horretatik ateratzen. Gehienek atera nahi dute, baina askok ez dute formakuntzarik ezta laguntza sarerik ere, eta horrela oso zaila dute.

Orain klubik ez dago apenas. Prostituzioa pisuetan dago eta zailagoa da kontaktatzea. Ofizio zaharrena dela diote, baina esplotazio zaharrena da. Ni harritzen nauena da gure inguruko gizonen, gure anaiak edo irakasleak izan daitezkeenek, emakume hauengana jotzen dutenean benetan pentsatzen dute ondo



Isa Egiguren Ezkerro

TOLOSA, 1973



Kazetaritza ikasi zuen Nafarroako Unibertsitatean. Komunikazio lana egin du Munduko Medikuek erakundearentzat eta duela hiru urtetik SHM Itsas Salbamendu Humanitarioan eta Aita Mariren komunikazio taldean ari da boluntario moduan. Hainbat komunikabidetan argitaratu ditu elkarrizketa, erreportaje eta bideo ugari.

daudela? Benetan sinesten dute gus-tura daudela egunero zortzi edo ber-deratzi gizonekin oheratuta eta nahi duten guztia eginda? Hala uste dute edo nahiago dute ez pentsatu?

Komunikazio politikoan ere aritu zara zazpi urtez Podemos alderdiarekin. Zer moduzko esperientzia izan zen?

Hori bai izan dela unibertsitate bat. Politika ikusi dut barrutik eta gauza batzuk oso politikak dira, baina kontu itsusiak ere badira. Oso gogorra da, hala ere, kontent nago asko ikasi du-dalako.

Zer zen itsusiena?

Frustrazioa, adibidez. Frustrazioa ikusten duzunean komunikabide ba-tzuetan informazioa ematen dutela in-teresatzen zaien moduan. Horrek bide ematen dizu pentsatzeko zenbat ma-nipulatzan gaituzten eta nola erabil-tzen duten informazioa hedabide eta sare sozialetan. Desinformazio handia dago eta hori oso arriskutsua da. Nik beldurrez ikusten dut adibidez, egun hauetan Erresuma Batuan dagoen indarkeria xenofoboaren olatua. Hor atzean ikusten da zenbait politikarik errefuxiatuen eta musulmanen aurka egin duten diskurtso gaiztoa komuni-kabide batzuk zabaltzen ari direla eta jendea xaxatzen kalera ateratzeko. Ba-tek daki ez ote dugun hemen antzeko zerbaite ikusiko sarri.

Politikan asko lantzen da zer hitz erabili eta nola. Adibide bat: Kanaria uharteetara iristen ari diren migrazio "olatuez" hitz egitea oso gaiztoa da. Esamolde hori entzunda zuk ulertzen duzu zerbaite txarra eta itzela ari dela gertatzen. Baina gero datuak begira-tzen badituzu, ikusten duzu gatazke-tatik eta jazarpenetatik ihes egiten du-ten pertsonen %69 inguruko nazioek hartzen dituztela. Errefuxiatu gehien dituzten bost herrialdeak Iran, Turkia, Jordania, Alemania eta Palestina dira, UNHCR Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandatariko datuen arabera. Sal-tzen diguten irudia, ordea, oso beste-lakoa da, inbasioarena.

Gu mehatxatuta sentitzea nahi dute?

Zalantzarik gabe. Europako azken hauteskundeetan inoiz baino gehiago hitz egin da migrazioaz eta errefuxia-tuez, gaizkileak balira bezala. Baina

etortzen direnen artean denetarik dago eta gaizkileak gutxienekoak dira. Europak diru pila bat ordaintzen die Turkiari, Libiari eta Tunezi han migra-tzaileak harrapatzeko eta ateratzen ez uzteko eta, hala ere, lortzen dute gu-rera iristea. Europa ez bada esertzen erabakitzen pertsona horiekin zer egingo duen, arazoa ikaragarri luzatu-ko da. Urtetan Alemaniak errefuxiatu-piloa hartu du, baina ezin du gehiago horrela jarraitu.

Merkeago litzateke errefuxiatuak Europan jasotzea eta etorkizunerako bidea eskaintzea?

Jakina! Mugak blindatzeko gastatzen den dirutza inbertituko balitz for-makuntzan eta lan munduan inte-gratzen, emaitza hobekak lortuko li-rateke. Ikasketak dituen jende asko etortzen da eta ezin dute beren alo-rrean lanik egin haien tituluek he-men baliorik ez dutelako. Pandemia garaian, adibidez, medikuak behar ziren eta mediku asko zegoen lan egin ezinik. Beti ikusten ditugu jende pobre bezala, baina denetarik dago. Honen aurrean galdera asko egin beharko genuke: zergatik ez den egi-ten errefuxiatuen banaketa justu bat Europa osoan edota zergatik jarrai-tzen dugun herrialde batzuk esplota-tzen lotsarik gabe.

Senegal, adibidez, arrantzarik gabe uzten ari gara. Gainera Europako arrantzaleek arraste-arrantza erabil-tzen dute han legatzak harrapatzeko, hau da, molde kaltegarriena. Koloni-zazioa ez da amaitu. Beste adibide bat: Ginea Bissaun izan nintzen abenduan. Portugaleko kolonia izan da 1973ra arte, baina orain Txina eta Errusia iritsi dira Afrikara eta kolonialismo berria egiten ari dira. Ginean Txina hasi da errepideak eta arrantza muga-rik gabe egiten. Herrialde haietan ba-liabide natural asko daukate eta beti dago norbait haiei lapurtzeko prest, baina gero ez ditugu hangoak gurean onartzen. Zurikeria hutsa da. Gauza bera gertatzen da Israeli saltzen diz-kiogun armekin. Oso zaila da hau dena konpontzea baina aztertu behar dugu gure herrialdeak nola jokutzen ari di-ren gatazka horietan.

Orain Apoyo Mutuo elkartearekin lanean ari zara boluntario gisa. Zer egiten duzue hor?

Elkartea 2013an sortu zen eta ni duela



pare bat urte hasi nintzen. Arro- txapean duten egoitzan as- tean bitan janaria banatzen dute. Astelehenetan kalean dauden gazteei, ia denak marokorak eta aljeria- rrak, eta asteazkenetan familiei. Gehienak migra- tzaileak dira, baina Iruñe- ko familiekin ere topo egin dut. Lan ikaragarri ona egiten dute. Horretaz gain, gazteei for- makuntza ikastaroetan izena emateko aukera eskaintzen diete. Alde Zaharrean hasi ziren etxe-gabeteen aurka lanean eta laguntza sarea handitzen joan da. Kezka da gero eta jende gehiago iristen ari dela eta orain ezin dituzte denak ar- tatu. Atzo bertan mutiko batzuk janari- rik gabe gelditu ziren.

Duela bost bat urte hasi ziren Na- farroan, 18 urterekin kalean gelditzen ziren 50 bat gazterekin proiektu berri bat gauzatu: lo egiteko toki bat eta ikasteko aukera ematen zieten, baina ez da erraza, ikasi arren ere, askotan pape- rik gabe jarraitzen dutelako eta horrela ezin dute lanik egin. Egoera orain are eta zailagoa da gero eta gazte gehiago dagoelako kalean.

Txantrean horren ezaguna egin zen Cheikhouna Dieng senegaldarraren laguna ere bazara

Bai. 2017an auzoan prozesu gogor bat bizi izan genuen. Gazte senegaldar hori

“ **Libian, itsasoratu aurreko gauetan, emakumeak eramaten dituzte gela batzuetara eta han bortxatzen dituzte ia guztiak**”

kalean arropa saltzen harrapatu eta kanporatu nahi izan zuten. Babes mugimendu handia sortu zen auzoan. 4.000 pertsonako manifestazioa egin genuen eta hemengo auzo-lagun batek lan kontratua egin zion bere lan- tegian. Bizpahiru urte oso gogorak izan ziren, baina azkenean lortu genuen hemen gelditzea eta gaur egun nahiko bi- zimodu normala darama. Berriki bere lehengusu gazte bat etorri da, Moussa, eta hura ere kamisetekin harrapatu dute. Laster eginen diote epaiketa eta beldur gara ez ote duten kanporaketa eskatuko. Bi gazte horiek gelditu gabe aritu dira lanean familiari dirua bidal- tzeke, hori da egin dutena. Non dago arazoa?

SMH Itsas Salbamendu Humanitarioa erakundearekin ere boluntario moduan ari zara. Nola hasi zinen?

Duela hiru urte. Oropesan nengoela Aita Mari ikusi nuen, Open Arms eta erakun- de alemaniar bateko beste salbamendu itsasontziarekin batera. Aita Mari ikustera joan nintzen eta kapitainak nirekin so- las egiteko batera gogorik ez izan arren, temati jarri eta *Diario de Noticias*-erako erreportaje bat egitea proposatu nion. Hurrengo egunean itzuli, erreportajea egin eta segituan hasi nintzen komu- nikazio alorrean boluntario moduan.



Azken hitza

ETIKETAK

Bitxia da. Errefuxiatuei askotan etiketak jartzen dizkiegu: senegaldarrak jatorrak eta langileak dira, marokorak, aldiz, gaiz- toak eta liskartsuak. Siriarrak itxuraz gu bezalakoak dira, zu- riak, eta gauza askotan gure bi- zimoduaren oso antzekoa dute. Aita Marin erreskatatu geni- tuen gehienek ikasketak zituz- ten edo unibertsitatean zeuden. Gazte guztiak haien Instagram kontuak dituzte. Batek esaten zigun traktorea eta autoa sal- du behar izan zituela Europara joateko, baina bere Harley Da- vison motoa ez zuen saldu nahi eta senide bati utzi ziola duin- tasun kontu batengatik.

Eta migratzaile guztiak ez dira berdinak, jakina. Ibrahi- mek, adibidez, 23 urte ditu. Oso triste dago ez duelako ez ikasketarik ezta lanik ere, eta amari ezin diolako kontatu ka- lean bizi dela. Iruñeko Paris 365 futbol taldean jokatzeko du, baina integrazioa ez da bate- re erraza. Esaten du agian Ma- rokora itzuliko dela. Aljeriako beste mutil bat ezagutzen dut, sei hilabetez tren geltokian lo egiten egon dena eta goizero esnatu eta ikastera joaten zena, dutxatu gabe eta ahal zuen be- zala. Bera bezala asko ari dira ahalegin handia egiten ari dire- nak, baina paperak lortzea oso zaila da eta egun osoa kalean emanaz gero, ezer onik ez.

Chios irlan zeukaten klinikan bi aldiz izan naiz eta aurten, lehen aldiz, hartu dut parte erreskate misio batean.

Chiosen ikusi nuen Greziako errealitatea oso gogorra dela. Turkiatik 11 kilometrora dago eta txalupa txikiekin egiten dute bidea. Greziako kostazainek harrapatu egiten dituzte eta txalupa txiki batzuetan Turkiako uretan utzi, turkiarrak haien bila etor daitezzen.

Nolako esperientzia izan da erreskatea?

Izugarrria. Pasaiara joan eta han bi asteko entrenamendua egin genuen. Birtartean ikuskapen gogor bat egin zuten, baimenak eman aurretik. Hamalau ginen eskifaian, zortzi profesional eta sei boluntario, eta bakar batek zerbait gaizki eginez gero baimenik ez eta akabo misioa. Presio handia zen. Gogo handiz atera ginen uztailearen hasieran eta Galizian gelditu behar izan genuen eguraldi kaxkarrarengatik. Uztailearen 14an, Iruñean *Gaixoa ni* abestu ondoren, iritsi zen unea.

Normalean dei bat jasotzen da, itsasontzi batetik edo Alarm Phone izeneko elkartetik. Migratzaileek satelite bidezko telefono bat eraman ohi dute, mafiek emanda, abisua emateko. Guk deirik ez genuen jaso. Guardia egiten ari ziren bi lagunek bat batean ikusi zuten patera Aita Mariren aurrean. Iratzarri gintuzten, prestatu eta ziztuan atera ginen, isil isilik. Izugarritzko tentsioa zegoen. Txalupatxoa ikusi genuen unea oso hunkigarria izan zen.

Eta iritsi zen momentua.

Bi zodiak genituen: Donosti eta Neska. Paterara hurbiltzen ari ginela ohartu ginen hiru txalupa gehiago hurbiltzen ari zirela. Libiarrak ziren. Askotan libiar kostazainak gerturatzera baina hiru agertzea ez zen batere normala. Metrailetak eta aurpegiak estalita zituzten batzuek. Kapitaina hasi zen haiekin hitz egiten megafoniatik eta, azkenean, keinu bat egin ziguten esanez hurbiltzeko eta paterakoak hartzeko. Urduritasun handiko uneak izan ziren eta errefuxiatu batek bere burua bota zuen uretara, nahiago dutelako hil Libiako kartzeletara joan baino.

Libiarrak haien artean ari ziren eztabaidatzen nork eramango zituen gai-



xo haiek Libiara bueltan, haietako bat ohartu zenean bideoan grabatzen ari ginela. Neu ari nintzen dena grabatzen eta argi ikusi nuen zeinen garrantzitsua den lekukoak egotea. Orduan eman ziguten

baimena errefuxiatuak Aita Marira eramateko. Bukatu genuenean berriro agertu ziren, txalupa hutsera salto egin eta eraman zuten Libiara, ontzi hutsa eramateagatik ere sos batzuk ematen dizkiotelako.

Ez ziren identifikatu. Batek pirata bandera zeraman. Gero esan ziguten bat kostazainen ontzia zela, baina ez dakit alde handirik ote zegoen haien eta mafiakoen artean.

34 pertsona erreskatatu genituen. Gehienak siriarrak ziren eta baziren ere Egiptoko 15 urteko bi mutil, Nigeriako gazte bat Boko Haram taldearen heriotza mehatxutik ihesean eta Bangladesheko batzuk ere bai. Bi emakume siriarrak zeuden. Aita Marira igotzen lagundu genituen lehenbizikoak izan

ziren. Horietako batek eskua hartu zidan eta muxuak ematen hasi zitzaidan esker-erak ematen. Oso hunkigarria izan zen. Ez nekien zer egin. Esaten genien lasai egoteko eta European zeudela. Hurrengo egunetan emakume horiek ez zuten batere hitz egin. Ez ziren apenas mugitzen. Beste batzuek kontatu ziguten paterara igo baino lehen egun batzuk pasatzen dituztela jendez betetako etxe batzuetan, eta gauetan emakumeak eramaten dituztela gela batzuetara eta han ia guztiak bortxatzen dituztela. Eta kasu honetan ikusi zutela bi hauek bortxatu zituztela. Haiek ez zuten ezer kontatzen mingarria izateaz gain haientzat oso lotsa emangarria delako.

Horrek izugarritzko mina ematen dizu. Errefuxiatu bat kontzeptu bat da, baina pertsona bat ikusten duzunean zure aurrean eta ezagutzen duzunean dena aldatzen da.

Ni Aita Marin oso txikia sentitu nintzen. Oso gauza gutxi gara, baina ezin dugu beste alde batera begira egon. Argi daukat gauza txikiak egiten jarraitu behar dudala. ●

“
**Gure inguruko
gizonek, benetan
sinesten dute prostitutak
gustura daudela egunero
zortzi edo bederatz
gizonekin oheratuta?”**



Kataluniako finantzaketa bereizia

Salvador Illa Generalitateko *president* izendatzeko oinarrietako bat PSC-ERC arteko ituna izan da. Ez da itun subiranista inondik ere, baina hainbat alorretan ate berriak zabal litezke, ohikoa den PSC-PSOEn balaztaren estrategia politikoa berriz ere nagusitzen ez bada, behintzat. Ate horietako bat estatuko finantzaketa ereduaren beraren eraldaketa da. Izan ere, itunean Kataluniak finantzaketa bereizia jasoko duela aipatzen da eta horrek estatuko egungo finantzaketa autonomikoaren ereduaren erreforma ekar lezake. Baina itundutakoa irekia eta anbigua da.

Katalunian sortzen diren zerga gutzietako arau normatiboaren gehikuntzaz hitz egiten da akordio horretan, era oso zabalean eta zehaztapenik gabe. Eta segidan bidezko finantzaketa bereiziarren beharraz. Estatuaren gastua sostengatzea eta lurralde arteko elkartasuna egotea osagarriak direla aipatzen du itunak. Giltzarria da negoziazio prozesua Generalitatearen eta gobernu zentralaren arteko esparru bilateralean kokatu izana, alegia, esparru multilateraletik at.

Aipatu izan da Kataluniak zerga sistema berriarekin Hego Euskal Herriko kontzertu eta itun ekonomikoaren antzeko eredia izango duela. Baina, zalantzak zalantza, Generalitatearen arauak ez du izango euskal zerga sistemen irismenik ezta ahalmenik ere. Euskal foru arauak estatuko finantzaketa esparrutik kanpo kokatzen dira erabat eta, antza, Kataluniako araua errejimen komunaren barnean mantenduko da.

Kataluniaren pisu ekonomikoa Hego Euskal Herrikoaren hirukoitza izanik, estatuaren finantzaketan eragin oso indartsua izango luke kutxa komunetik kanpo geratzeak

Errejimen komuneko erkidegoetan administrazio zentralak zergen kopuru handienaren diru-bilketa gauzatzen du eta ondoren erkidegoen artean banatzen du, eskumenak eta inbertsio batzuk finantzatzeko, aberatsenen eta txiroenen arteko *elkartasun printzipio* baten arabera. Errejimen hori 2009an hitzartu zen eta iraungita dago.

Lurralde arteko elkartasun mekanismotik kanpo daude Hegoaldeko lau ogasunak. Estatuari kupo bere zerbitzuen prestazioengatik ordaintzen baitie eta kupoak ez du beste lurraldeetarako emaririk bideratzen. Kataluniak, aldiz, mekanismo horretan jarraituko luke, estatuko zerga kutxa bakarra bere horretan mantenduta. Kataluniaren pisu ekonomikoa Hego Euskal Herrikoaren hirukoitza izanik, estatuaren finantzaketan eragin oso indartsua izango luke kutxa komunetik kanpo geratzeak.



MIKEL ZURBANO
EKONOMIALARIA

Inbestidurarako adostasunen artean legoke PFEZen diru-bilketa eta kudeaketa osoa Generalitatearen esku geratzea (gaur egun %30ean dago, Aznarrek eta Pujolek 1996an sinatutako Majestic Itunari esker). Ondarearen, oinordetzaren eta jokoaren diru-bilketak %100 Kataluniaren esku jarraituko luke. Eta Kataluniak estatuarekiko duen zor fiskal historikoa deuseztatzea ere adostutakoen artean dago.

Baina auziaren muina da nolakoa eta zenbatekoa izango den Kataluniak kutxa komunean egingo duen ekarpena. Erabaki horrek baldintzatuko baitu errejimen komuneko kutxaren fluxuak nola bideratuko diren etorkizunean eta, finean, errejimen komunaren finantzaketa eredu berriaren egitura bera. Hori izango da gatazka eremu nagusia finantzaketa bereiziarren formulaz aurrera egin ahal izateko. Elkartasun eza eta pribilegioaren kontzeptuen erabilera maltzurra ikusten ari gara dagoeneko eskuin zein ezkerreko ahots zentralisten aldetik.

Kataluniako administrazio eta eragile gehienek azpi-finantzaketaren arazoa dutela aldarrikatu izan dute behin eta berriro. Zerga sistema bereizia burujabetzarako bidean sakontzeko tresna egokia den ikusteke dago. Estatuaren federalizazio edo birzentralizazioaren arteko tentsioan urrats bat gehiago dugu finantza ereduaren erreforma. Urte politiko berriaren lehen erronka auzi indartsu hori izango da. ●

Harrera bizkorreko gelak etorri berrientzat



MALORES ETXEBERRIA



PAULA ESTÉVEZ

Eroriko askoren artean badira lorpenak ere. 35 urte inguruko ama gazte batek galdetzen zidan aurreko batean nola arraio lortzen zuten beraien eskolan etxean euskara jaso ez zuten ikaskideek etxetik euskaldunak ziren neska-mutikoek bezain ongi ikastea eta hitz egitea euskaraz. Eskolan haur asko zeuden etxe ez euskaldunetakoak, ez ziren ama-hizkuntzaren arabera taldekatzen, eskola herri eta inguru erdaldundu batean zegoen kokatua, eskolaz kanpoko jarduera askok herrian gaztelaniaz funtzionatzen zuten... Zer pentsatua eman zidan galderak, eta orduko arrakasta haren gakoez jardun genuen. Gelako ikasle kopurua ote zen, taldekatzeko sistema, gurasoen konpromisoa, irakasleen militantzia, erabiltzen zen pedagogia, komunitate haren indarra... Denetik izango zuten pixka bat, baina egia da lortzen zuela haur eta gazte haiek euskalduntzea.

Gaur nekez ari da inguru ez oso euskalduneko eskola bat haurrak euskalduntzen, eta ez da erraza arrakasta ezaren gakoak aletzea. Denetik izango da pixka bat, baina egia dena da ez duela lortzen. Iniziatiba bai publiko eta bai borondatezko batzuk ezagutu ditut azken urteotan han-hemenka, haurren euska-

razko gaitasuna hobetzen laguntzeko. Gehienak, edo denak, familia etorri berrietako haur eta gazteei zuzenduak eta denak eskola orduz kanpo eskainiak. Ekimen horiekiko errespetuz eta miresmenez (ezagutzen baititut herrira uda partean etorritako haurrei beren etxe partikularretan eskolak ematen dizkieten militanteak ere), bospasei ordu eskolan ematen dituzten haurrei beste ordubate edo dena delako esfortzua eskatzea ez dakit egokiena ote den.

Errefortzu horien harira interesgarria iruditu zait Katalunian egin duten esperientzia bat. Programa pilotu bat izan da, pasa den ikasturte honetan Bartzelonako zortzi ikastetxe publikotan martxan jarri dutena. Ekainaren hondarrean ekimenaren ebaluazioa egiten zuen artikulua irakurri nuen prentsan. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak dira denak, eta programa nerabe etorri berriei eskaini zaie, katalanaren ezagutza gutxienekoa eskolan hasi aurretik lortu dezaten. Sei hilabeteko programa izan da, irailetik otsailera bitartekoa, eta bertan katalana modu intentsiboan irakatsi zaie, baina ez sintaxia eta gramatika, baizik eta nagusiki landu dutena da ulermena, ahozkoa eta idatzizkoa, eta mintzamina. Horrez gain,

Kataluniako kultura eta ohituren ezagutza ere jorratu dute eta, hizkuntzaren irakaskuntzan espezializatutako tutoreez gain, izan dituzte migrazio prozesuetako dolu eta egoera zailtan adituak diren laguntzaileak ere. "Aules d'acollida accelerada" (Harrera bizkorreko gelak) izeneko inizatiba hori ongi baloratu omen dute, oro har, bai ikasleek beraiek baita tutoreek ere, eta hastera doan ikasturtean esperientzia ikastetxe guztietara zabaltzeko asmoa adierazi du Hezkuntza departamentuak. Kontrako iritziak ere badira: harrera gelak integrazioa kalteztzen duela diote hainbat soziologok, eta hobesten dutena da errefortzu intentsiboa ohiko gelan bertan ematea.

Gurera etorrita, gogorra da 11-12 urtetik aurrerako adinean iristen diren ikasleak bat-batean euskarazko eredu eskola batean sartzea, ikasketak normaltasun batez jarraitu ahal izatea eta ikastaldean integratzea. Eta ezintasun hori askotan konpontzen da etorri berria A eredu eskola batera bidalita, euskaraz ikasteko eskubidea urratuta eta hura euskalduntzeko aukera galduta.

Planteamendu desberdinak esperimintatu beharko dira gako berriak biltzeko. ●

Zaharrak berri



MIKEL OTERO
LEGE BILTZARKIDEA

Dagoeneko ez dakit bero olatuek burmuina kolpatuta gauden, betiko hipokrisia den edo logika sistematikoko hutsa den, baina dakigunaren, esaten dugunaren eta egiten dugunaren arteko arrakalak, kezka haratago, harridura ere sortzen dit, batez ere uda giroan. Albisteak, ikerketak, sare sozialetako interakzioak... itxuraz loturarik gabeko segida zoro bat osatzen dute. Gaur ikerketa baten albistea jasotzen dugu non, muturreko beroaren ondorioz, Europan, aurreko urtean, 43.000 pertsona hil zirela esaten zaigun, eta bihar turismoak, berriro, errekorra hautsi dituela esango zaigun, pozarren. Atzo Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiako CO2 isuriaren inbentarioa argitaratzen zen, isuriak %4,7 igo direla egiaztatuta, eta gaur errepideak (eta gasolindegia) autoz lepo bete eta zeruak hegazkinez josi ditugu. Urte osoan desazkundera guda-oihu gisa erabili duen hainbatek gaur urruneko txoko xarmantetatik turismoz beteriko argazkiak zintzilikatu dituzte sare sozialetan.

Edozein kasutan, niretzat, ia oharkabean pasa bada ere, Energiaren Euskal Erakundearen azken balantze energetikoa izan da, berriro, gehien kezkatu nauen argitalpena. Hain dira eskasak datuak, salagarri bezain ulergarri suertatu zaidala udako nahasmenean argitaratu izana. Badira izutzeko moduko hainbat

datu, baina hiru azpimarratuko ditut. Bat, erabilitako energiaren %47 petrolioaren erretzetik dator; bi, EAEko auto-hornidura energetikoa %8,7 ziztrin bat besterik ez da, edo alderantziz esanda, kontsumitzen dugun energiaren %91,3 kanpotik dator; eta, hiru, kontsumitzen dugun elektrizitatearen %6,6 bakarrik dator bertako iturri berriztagarrietatik. Hori bereziki larria da, zeren, kanpoan ekoiztutako elektrizitatearekiko sekulako menpekotasuna izateaz gain, bertan sortzen den elektrizitate gehiena gasa erretzetik baitator. Eta, noski, ezin ahaztu gasa erretzetik datorren megawatt bakoitzak berriztagarrietatik datozenak baino askoz CO2 isuri gehiago dituela, nazioarteko aldaketa klimatikoaren panelaren arabera. Hain zuzen ere, 44 aldiz gehiago, adibidez, eolikoarekin alderatuta. Hori ere kontutan hartu beharko da ematen ari garen eztabaidetan, ez?

Kontraesanak kontraesan, ikasturte berria heltzen ari da eta Augusto Monterrosoren mikroipuin famatua parafraseatuz [esnatu zenean, *dinosauroak hor jarraitzen zuen*], esan dezakegu oporrak amaitzen ari zaizkigun honetan arazoek hor jarraitzen dutela, krisi ekologikoari aurre egiteko uda bat gutxiagorekin, hori bai. Jarrai dezagun eztabaidan arazoaren tamaina eta konplexutasuna alboratu gabe, arren. ●

Ibaiak



ARANTZA GUTIÉRREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Mugak Zabalduz karabanarekin, Bosnia Herzegovinako Bihac hirian, Nihad Suljic aktibistak Drina ibaia Balkanetako hilobi handiena dela azaldu zigan. Ahantzi ez daitezen, topatzen diren hilotzak identifikatzeaz eta ehorzketa emateaz arduratzen da, merezi duten duintasuna aitortu asmoz. Drina 1990eko hamarkadan gerra-kriminalek erabili zuten, etsaitzat hartzen zituztenak desagerrarazteko.

Suljic-en testigantza entzutean beste ibai bat etorri zitzaidan burura, Mexikoko Río Bravo; horrek ere marrazten du heriotzaren muga bat. Urrutiago dugun arren, bizipenak partekatzen dituzte bertatik igarotzen direnek, migratze-

ra behartuta, aspaldian Getxon ezagutu nuen emakume guatemalar batek azaldu zidan bezala... Berak hirugarren saiakeran lortu zuen gurutzatzea, eta bilatzen zuen etorkizuna lortu ez zuen arren, beste askok ez dute lortzen.

Bidasoa ere izan nuen gogoan, gerra ondorengo kontakizunak entzunda nituen etxean, askatasunaren bila bizia galdu zutenenak, eta azken urteotan zazpi pertsona –Abderraman Bas, Ibrahim Diallo, Abdoulaye Koulibaly, Yaya Karamoko eta Tessfit haien artean– hil dira bertan Europara bidean.

Ez ditzagun ahaztu ur azpian ezkutatzen diren etendako bizi-historiak eta aitortu dezagun izan zirela; zor diegu. ●

Uda baten kronika



MATI ITURRALDE
MEDIKUA

Udaldian, erretiratuok ez ohi dugu opor goserik, eta patxadaz aztertu ahal ditugu gure inguruko gorabeherak. Hori dela-eta, gai batzuek harriduraz harrapatu naute, eta honako hauek dira.

Espainia. Eurokopak eta Olinpiar Jokoen uda osoa bete dute. Aldez aurretik, esan behar dut kirol-lehiakortasun profesionalez ez dela nire gustukoa, baina harritu nau Espainiarekiko zaletasunitsu eta agintzailea edonon ikustean, baita Euskal Herrian ere. Nire ustez, ezabatzen ari da aspaldian lortu genuen euskal esparru emozionala (batzuetan, identitateari loturik, beste batzuetan, ez). Kultura menperatzailearen keinuak asumitzen ari gara, eta gure herrietan *Potra salvaje* abestia normaltasunez entzun da. Nire harridurak galdetzeran eraman nau ea nik maite dudana komunitate sozial, kultural eta euskalduna desagertzeaz ote dagoen. Horrela bada, harriduraz, baina, batez ere, galduta sentituko nintzateke. Espero dut *moda* bat besterik ez izatea.

Osakidetza. Uda osoan, lagun min bat bisitatu dut erietxean. Ia egunero harriduraz ikusi dut osasun sistemaren

Ezabatzen ari da lortu genuen euskal esparru emozionala. Kultura menperatzailearen keinuak asumitzen ari gara, eta gure herrietan *Potra salvaje* abestia normaltasunez entzun da

gainbehera. Banekien Osakidetza gaizki zegoela, bertan lan egin baitut azken berrogei urteotan, baina eguneroko errealitateak gairitu du nire susmorik txarrena. Antolaketarik eza, mediku aldaketa etengabea, informazio eta komunikazio traketsa eta, azken finean, deshumanizazioa. Argi daukat ez dela inondik ere langileen ardura. Zerbitzuruak, kudeatzaileak eta politikariak izan dira eta izaten ari dira hondamendi honen erantzuleak. Abuztuko egun be-

roenetan, pazienteak 32 gradutan egon dira geletan. Gestore ikusezinak, ostera, oporretan edo haien bulegoetan zeuden eroso, aire girotuarekin. Uda pasa ondoren, osasun publikoaren aldeko borroka berriro piztuko da, baina larrialdiko egoera honetaz gizarte osoak kontziente izan behar du. Osasun publiko duin eta eraginkorrik gabe, ez dago etorkizunik herri honetan.

Solaria. Madrigo enpresa bere inbertsio funts ilunekin heldu da gure herrira, alfonbra gorria jarrita. Administrazio ugariaren laguntzekin aurkeztu dituzte makroproiektu suntsitzaileak, eta horrek herri honen erantzuna piztu du, eta lan sakona eta serioa antolatu da haren aurka. Hori ez da harrizkoa, historikoki gure herriek izan duten erantzuteko modua izan baita, baina nire harridurararako, Arabako arduradun politikoek ez dute erantzun sendorik eman. Zaila da ulertzen zein den arrazoi. Oporren ondoren, espero dezagun euren iritzia emateko gaitasuna berreskuratzea eta proiektatutako txikizioaren aurrean euren jarrera politikoa era irmo batean adieraztea.

Harriduraz, uda laster amaituko da. ●

FINAL-ZORTZIRENAK

URRETXU

Irailak 14, larunbata, 17:00

Labeaga antzokia

www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

LASARTE-ORIA

Irailak 15, igandea, 17:00

Manuel Lekuona kultur etxea

GBT24

**GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2024**





ARGIA

BABESTEKO

ARRAZOI

1. KAZETARITZA INDEPENDENTEA

Langleiona delako hedabide hau, ez inolako banku, multinazional edo alderdiren.

2. EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

Gure hizkuntzak funtsezko dituelako euskara hutsean funtzionatzen duten proiektuak.

3. HEDABIDE DIGITALA ETA DADEREKOA

Egunero sarean aktualitatea jorratu eta aldizkarian hats luzeko kazetaritza lantzen dugulako.

4. EZ GARA NEUTRALAK

ARGIAN jendartea eraldatzeko tresna izan nahi dugulako kazetaritza kritikoaren bidez.

5. PODCASTAK ETA DANTAILAK EUSKARAZ

Ehunka dokumental, film-labur, hitzaldi eta abar eskaintzen ditugulako libre eta doan.

6. ELKARLANAK BULTZATUZ

Eragile ugariarekin proiektuak ditugulako: Inor Ez Da Ilegala, Bizi Baratzea, Lurra Herriari Deika, Euskarazko Plazen Sarea...

7. GOOGLE GABE

Gure irakurleen pribatutasuna babesten dugulako teknologia burujabetzan sakonduta.

8. BANAKETA EKOLOGIKOA

Bizikleta bidezko banaketa sustatzen dugulako, plastikorik gabeko zorrotan.

9. 100 URTETIK GORA

Ibilbide luzeko eta etorkizun luzeagoko proiektua delako.

10. MILAKA PERTSONAKO KOMUNITATEA

ARGIA Jendea delako proiektuaren independentziaren bermea.

11. ELKARTASUNEAN OINARRITUTAKO HARDIDETZA

Norberak erabakitzen duelako zenbat ordaindu, inor ARGIArik gabe gera ez dadin.

TXIKITIK ERAGITEN argia.eus/eginargiako



A group of people, some wearing balaclavas and carrying rifles, in a natural setting. The image is a close-up, slightly blurred, showing several individuals. Some are wearing dark balaclavas and carrying rifles. One person in the foreground is wearing a colorful, patterned shawl. The background is a soft-focus natural setting.

CHIAPAS

Altxamendu zapatistatik 30 urtera

1994ko urtarrilaren 1ean, ehunka indigenak aurpegia estali zuten, Mexikori eta munduari esateko: "Nahikoa da!". Ordutik mundu osoan eredu bihurtu da EZLN, autonomiaren eraikuntza helburu, herri indigenak bizi daitezzen, kapitalismotik at. Egungo egoera, ordea, inoiz baino krudelagoa da, narkotrafikoaren eta paramilitarren erdi-erdian baitaude.

San Cristobal de las Casase-
ra iristea erraza da, berez.
“Azken hilabeteetan lasaia-
go dago, baina joan aurre-
tik enteratu zaitez ea blokeorik
ote den errepideetan, zapatisten
eta narkoen artean giroa ez da la-
saia”, esan digu Palenqueko bizi-
lagun batek. Mendiko bide batetik
egin dugu bidea, hainbat furgone-
tak elkarrekin egindako bidaian,
eta arazorik ez da izan.

San Cristobal da Chiapasko
bigarren hiriburua, eta bertan
izan zen, duela 30 urteko urta-
rrilaren lehen egunean, mundu
osoa Mexikora begira jarri zuen
altxamendu zapatista. 1994ko
urtarrilaren 1ean sartu zen Me-
xiko Merkatu Librearen Itunean

AEBrekin eta Kanadarekin, eta
horregatik aukeratu zuen EZLNk
data: neoliberalismoaren aro ber-
ria inauguratzear zela. Atzera-
gotik zetorren historia.

1983tik Chiapasko oihanean
indigenak politikoki antolatzen
eta formatzen ari ziren. Ez zen
ezerezetik sortu, eta, asko labur-
tuta, hiru ildok egin zuten bat, ho-
rrelako mugimendu bat sortzeko:
Fuerzas de Liberación Nacional
talde armatuko hainbat kidek, in-
digenen talde politizatu batek eta
Askapenaren Teologiaren buel-
tako mugimenduek ekarri zuten
Mexikoko historia betiko aldatu
zuen Ejército Zapatista de Libera-
ción Nacional (Nazio Askapenera-
ko Armada Zapatista) delakoa.





Actealeko sarraskiaren epaiketa. Eskuinean, Pedro Faro, Fray Bartolome de las Casas giza eskubideen zentroko kidea.

Pedro Faro chiapastarrak ondo oroi-tzen du egun hura. Urte berria ospatzen ari zen familiarekin eta etxera bueltan ikusi zituzten gerrillariak: “Zabaldu zen Guatemalako armadak Chiapas inbaditu zuela. Etxeetan geratzeko eskatu ziguten. Etxetik atera behar izan genuen une batean, eta hor ikusi genituen zapatistak. Eta, egia esan, lasai zeuden. Kontraste handia zegoen: kafea eta tamalak (jaki bat) eskaintzen zietenak, eta, bestetik, indigenen kontrako gorrotoa erakusten zutenak”.

San Cristobalen “determinismo koloniala” zegoela azaldu du Farok. “Indigena zen guztia zen atzeratua, zikina... eta etengabe zabaldu ziren mezu arrazistak”. Ondorengo egunak, noski, ez ziren batere lasaiak izan, eta Mexikoko historia modernoan inflexio puntua izan ziren. Hamabi eguneko gerraren ostean, lehen elkarrizketak abiatu ziren. Horiek babesteko, “babes gerrikoak” antolatuta zituzten, herrialde osotik etorritako gazteek eta militanteek.

Faroren ustez, erabat aldatu zen herriar askoren ikuspegia. Herri Maiaren historia kontatzen zen eskoletan, baina desagertutako herri baten moduan. Kontzientzia berreskuratu egin zen, eta haien oinordekotza aldarrikatu. Izan ere, zapatistak indigenak dira, baina ez

Zapatistek ez dute talde bakarra osatzen: tzeltal, tzotzil, tojolabal eta chol hizkuntzak hitz egiten dituzten taldeak dira. Chiapasen beste bederatzi hizkuntza hitz egiten dira, eta orain onartuta dauden arren, biziraupenerako borrokan ari dira

dute talde bakarra osatzen: tzeltal, tzotzil, tojolabal eta chol hizkuntzak hitz egiten dituzten taldeak dira. Chiapasen beste bederatzi hizkuntza hitz egiten dira, eta orain onartuta dauden arren, biziraupenerako borrokan daude.

FRAY BARTOLOME DE LAS CASAS

Fray Bartolome de las Casas giza eskubideen zentroko (Frayba) zuzendari ohia da Pedro Faro. Erresistentzian dauden talde indigenen jarraipena egiten dute, eskualdean dauden giza eskubideen urraketak erregistratzen saiatzen dira.

“Ezinezkoa da Chiapasen eta Mexikon dagoen biolentziaren jarraipena egitea”, azaldu du, frustratu xamar. “Estatuak ezkutatu egiten du, baina senideek ere askotan ez dute salatu nahi izaten”. Nola da hori posible? Duela hilabete gutxi izandako kasu bat ekarri du gogora: “Hammar desagertu izan ziren herri batean. Guk txostena egin genuen, eta salaketa publiko egitera gindoazenean, esan ziguten, ez bagenuen egiten, narkoak bi pertsona askatuko zituela”. Horrela, bada, gertatzen diren eta salatzen diren kasuen artean, jakin ezin den aldea dago.

CANCUCEKO BOSTAK

Biolentzia horren adibide gordina erakutsi digu Juanpik. Juanpi oso ezaguna da San Cristobalen –euskaldunentzat, batez ere–; Paliacate tabernaren jabea da eta Presxs en lucha kolektiboko kidea: “Preso politiko kontzeptua aldatu behar izan dugu, kasu ezberdinei aurre egiteko”. Mexikoko Estatu “errudunen fabrika” bat da.

Hain zuzen, bisita antolatu du Cereso 5 kartzelara, igandean, eta Junax boluntarioen zentroan dauden brigadistegi gonbita luzatu die. Bisita eguna da, eta asko dira kartzela kanpoaldean dauden senideak. Arropa beltzik, urdinik edo berderik ezin da sartu, eta brigadetak



GLOBAL JUSTICE NOW

Hainbat emakume zapatista, emakumeen topaketa batean, futbolera jolasten.

kideak kanpoan alokatu behar izan dituzte jantziak.

Espaniako eta Frantziako kartzelekin zerikusirik ez du –oilaskoak kafeak eta bestelakoak sartu ditugu–. Jardín moduko batean daude familiak presoekin, jaten eta Coca-Cola edaten. Galeriarantz sartu gara, eta futbol kantxaren inguruan daude ziegak. Zortzinaka daude banatarik, baldintza penagarrietan. Ohea ere erosi behar dute. Agustinek, adibidez, urte eta erdi eman du lurrian egiten lo.

San Juan Cancuc herriko bost presoekin egon gara. Haien kasua izugarria da: 2022ko maiatzaren 28an polizia bat, mozkorturik eta drogatuturik, haien auzoan erori eta zauritu zen. Hiru lagunek polizia lagundu, eta bertatik atera zuten, zauriturik baina onik. Biharamunean, droga trafikoa akusaziopean, atxilotu egin zituzten. Hiru egunen ostean, homizidio delitua egotzi zieten, agentea zaurien ondorioz hil zelako. Tortura latzak jasan zituzten: orratzak sartu zizkieten azkazaletan eta begietan, elektrodoak, jipoiak... Hurrengo egunean, lekuko gisa joan ziren lehengusua eta bizilaguna ere atxilotu eta inputatu zituzten. Tzeltalak dira, eta gaztelaririk ez zekiten kasik. Ezin izan ziren defenditu, eta hilketaren akusazioa sinatu zuten.

Detalle guztiakin kontatu du Agustinek



CIDECI edo Universidad de la Tierra, Chiapaseko indigenentzako eskola autonomoa. Irudian, bertako erizaintza.

XALBA RAMIREZ

nek gertatutakoa: “Jainkoari esker, badakigu errugabeak garena, baina injustizia da. Atzo nire alaba etorri zen, eta galdetu zidan ea ez ote ditudan maite, hemen nagoelako”, kontatu du malko artean.

Eduardo Galeanok kontakizun bera idatzi zuen: “1986an, diputatu mexikar batek Chiapasko Cerro Hueco kartzela bisitatu zuen. Hor topatu zuen indio tzotzil bat, bere aitari lepoa moztu ziona eta 30 urteko kartzela zigorrera kondenatua izan zena. Baina diputatuak deskubritu zuen hildako aita, eguerdi-

ro, tortilla eta babarrunak eramatera joaten zela, kartzelaraturako presoari. Preso tzotzil haren galdetegia eta epaiketa gaztelaraz izan ziren, hark gutxi edo ezer ez ulertzen zituena, eta jipoi on baten laguntzaz, konfesatu zuen bera izan zela parrizidioa deitzen zen zerbaiten egilea”.

Kartzelatik ateratakoan, Juanpiri galdetu diogu ea zergatik egotzi dieten gazte horiei delitua, jakinda errugabeak direla: “Indigenak eta pobreak direlako. Delituak ikertu beharrean, baztertutakoei egotzen dizkiete eta kito. Kartzela

Pedro Faro, Fray Bartolome de las Casas giza eskubideen zentroko kidea eta zuzendari ohia.



EIDER BEORIDE

hau errugabez beteta dago. Horregatik da estatua errudunen fabrika”.

BIOLENTZIAREN GORAKADA CHIAPASEN

Pedro Farok azaldu duenez, Mexikon gertatzen dena “biolentzia kapitalistaren eskalarik gorena da”. Iparraldean hasi zen, erdialdean gero, eta orain Chiapasera heldu da. “Bake narkoa” zegoen, kartelen eta estatuaren arteko akordio bidez: “2006an, narkoen aireportu bat deskubritu genuen Lacandona oihanean, eta salaketa egin arren, estatuak ez zuen deus egin. Ikusi genuen bizikidetzaren zegoela, eta gehiago ez salatzearabaki genuen, arriskuan jartzen ari bainekin”.

Talde kriminalak bazeuden lehenik ere, baina COVIDaren pandemiaren ostean, biolentziak ikaragarri egin zuen gora, desagertuta, hilketa, desjabetze eta desplazamenduekin: “2021eko ekainean hasi ziren gauzak aldatzen. Tio Gil deitzen zioten *kapo* baten semea hil zuten Tuxtla Gutierrez Chiapasko hiriburuan. Chapo Guzmanekin berarekin kolaboratzen zuten”.

Eraiketa horren ostean, lurraldearen kontrolerako borroka abiatu zen. Droga ez da garraiatzen den merkantzia bakarra. Kokainaz gain, trafikatzailerik beste “merkantzia” bat ere mugitzen

“Ezinezkoa da Chiapasen eta Mexikon dagoen biolentziaren jarraipena egitea, estatuak ezkutatu egiten du, baina senideek ere askotan ez dute salatu nahi izaten”

Pedro Faro

dute: pertsonak. Lehen, migratzaileen hamar pasabide zeuden Guatemalatik Chiapasera; egun, 90 baino gehiago dira. Eta Mexikoko bi kartel handienak euren artean ari dira haien kontrolagatik borrokan.

Narkoek lurralde bat hartzen dutenean –eta ez dira gutxi Latinoamerikan–, bertako guztia hartzen dute. Lurrak, etxeak, autoak... edozer izan daiteke narkoarentzat, eta zigorra garestiegia da ordaintzen ez duenarentzat. Horregatik da Chiapasko egungo egoera, eta Ertamerika osokoa, desastre hutsa. Tabascon dagoen migratzaileentzako zentro batean egon zen boluntario lanetan

Beñat euskalduna [izena asmatua da]: “Guatemalatik ihes egin duen jendeak ez du lanaren faltagatik ihes egiten. Denda bat ireki, eta narkoa agertzen zaio, eta esan hainbeste diru ordaindu behar diola kartelari. Ez dute bizi nahi estatuari eta narkoari ordaintzeko eta AEBetara joaten dira zorte bila”. Baina bidea ez da erraza: “Eskua moztu diotena; tirokatu bai baina hil ez dutena; matxete kolpe batez bi begiak lehertu eta itsu utzi dutena...”. Muturreko biolentziatik ihes egiten ari den kontinente oso bat ari da Mexiko zeharkatzen.

NARKOAK ETA PARAMILITARRAK

Chiapasko egoera ulertzeko oztopo handienetako bat biolentziaren iturria zein den identifikatzea da. Kanpotik “zapatisten eta narkoen arteko” guda gisa azaltzen dena ez da, inondik ere, errealitatearen isla. Askorentzat ezezaguna bada ere, zapatistek, 1996ko bake akordioetatik, ez dute tiro bakar bat ere jo. Hori ziurtatzen dute, behintzat, Fraybako kideek.

Biolentziaren mapa oso konplexua da, beraz. Egin kontu: lurraldean, guxtienez bederatzi talde armatu daude. Horiez gain, paramilitarrak eta narkoak. Erloju bonba da Chiapas. Talde armatu gehienak narkoarengandik defendatzeko eskualde mailako autodefentsa

egiturak dira. Horiek, ordea, garapen ezberdina izan dezakete.

Fraybako BRICOen (Behaketarako Brigada Zibilak) formazioaz arduratzen denak azaldu digu kon-plexutasuna [nahiago izan du bere izena ez eman]: “Panteló herrian, adibidez, Herreraren kartela sartu zela eta, Machetes izeneko autodefentsa taldea sortu zen. Talde horrek zatiketa izan zuen, eta orain narkoekin batera dabil lanean. Lehen, oso argia zen: Mexikoko Estatuak eta CIAk talde arma-tuak sortu, entrenatu eta finantzatzen zituzten, insurgentziari aurka egiteko helburuekin. Orain, oso bestelakoa da egoera. Narkoaren eta estatuaren interesen alde aritzen dira, baina gehienetan, bertako gizonak dira, indigenak”.

Edonola ere, ez du zalantzarik egiten: “Mexikoko Estatuak da erantzule zuzena, berak sortzen ez baditu ere, ez duelako haiek gelditzeko saiakerarik egiten, eta gure salaketei muzin egiten dielako”.

Egoera ez da berria azken 30 urteetatik hona. Plan berezia egin zuen estatuak EZLN eta borroka indigenak gerarazteko: Plan Chiapas 94. Plan militar horien jarraipena da egungo egoera. Adibide

lagzarrietako bat Acteal herrikoa da.

1997ko abenduaren 22an, 45 indigena tzotzil hil zituzten Acteal komunitateko eliza batean otoitz egiten ari zirela. Hamasei haurrak eta nerabeak ziren; hogeii emakumeak eta bederatzi gizon helduak. Zazpi haurdun zeuden. Eliza barruan hil zituzten 90 bat paramilitarrek, zazpi orduz luzatu zen operazio batean, Poliziaren talde batetik 200 metrora.

Hainbat herritar eta militar epaitu dituzten arren, inoiz ez da argitu estatuaren parte hartzea zein izan zen. Giza eskubideen aldeko militanteek ez dute zalantzarik: 1968an Mexiko Hirian izandako hilketak bezala, eta 2014an Ayotzina-panako 43 ikasleen desagertzea bezalaxe: “Estatua izan zen”.

ZAPATISTAK ATZERA BEGIRA

Marcos komandanteordeak 1994an irakurritako Lacandona Oihaneko Lehen Adierazpenean ikuspegi marxista klasikoa nagusitzen zen: armada suntsitu eta estatuaren boterea eskuratu, abangoardia gerrillaren bidez. Denborak aurrera egin ahala, ordea, bestelako ikuspegiak garatzen joan dira zapatistak. 1996ko

San Andreseko bake akordioek porrot egin zutenetik, konfrontazio armatutik aldendu, eta autonomiaren eraikuntzan dihardute, Lacandona oihanaren barnean, Lacandona Oihaneko Seigarren Adierazpenean ondo jasota dagoenez. Orduetik mugimendua hazi eta, batez ere, eraldatu egin da.

Zapatistak zenbat diren jakitea ezinezkoa da egun. Hori da zapatisten indarguneetako bat. Zapatistekin kolaboratzen duen Lupita ekintzaile feministak honela dio: “Behin kideetako bati horixe galdetu nion, eta erantzun zidan: “*Un chingo, somos un chingo*” (asko gara). Azkenekoz jendaurrean agertu zirenean, Ukrainaren eta Errusiaren arteko gerraren kontra izan zen, hainbat hiritan egindako mobilizazioetan; 100.000 lagun inguru batu zituzten. “Oso hunkigarria izan zen berriz ere zapatistak hirian ikustea”, oroitzen du.

Munizipio Autonomoak, Caracolak eta Gobernu Onaren Batzordeak sortu zituzten 2000ko hamarkadaren hasieran, eta, horrela, estatu egiturarik gabeko iraultza eraginkorra garatu zuten zapatistek. Egun, ordea, abiadura bizian ari dira eraldatzen, eta iaiztik hona, egi-



CIDECI edo Universidad de la Tierra, Chiapaseko indigenentzako eskola autonomoa. Irudian, jangela.



Denda batean Mexiko osorik

Yolandak denda txiki bat dauka San Cristobalen. Emakume zapatisten eta indigenen eskulanak saltzen ditu. Horietako bakoitzaren atzean norik egin duen jartzen du, eta batzuetan zenbat ordu eskaini dituen ere bai.

Yolandaren bizitzak indigena guztien historia dirudi. Gazte-gazte ezkondu zen bera baino puskaz zaharragoa zen gizon zuri batekin. Diruduna ez bazen ere, nagusitasun ekonomikoa zuen, eta kasik neskame gisa tratatzen zuen. Indigena zela eta, etengabeko tratu txar psikologikoak ematen zizkion. Yolandak normaltasunaren barruan ikusten zuen, indigenak isilik egoteko hezten baitituzte, oraindik. Bigarren alaba jaiotakoan egin zuen ihes etxetik, eta ordutik, zapatistekin eta borroka feministarekin engaiatuta dago.

Ez da jasan duen biolentzia bakarra. Mexiko Hirira joan zen bere ahizpa, ikastera, eta duela hamar urte, egun batetik bestera, kontaktua galdu zuten. Ez dute haren berririk izan, eta ez dira salatzeraz ausartzen, haien eta seme-alaben kontra egingo ote duten bahitzaileek.

Sekulakoak eta bi entzuten ditu aldiro-aldi denda. “Aurrekoan etorri zitzaidan emakume bat eta esan zidan indioek ez dutela lanik egin nahi, alferrak direla eta nik zer dakit zer. Ez dira konturatzen geu ere pertsonak garela, eta duin bizi nahi dugula. Ez dute onartu nahi!”, dio harridura gainetik kendu ezinik.

“San Cristobal oso arrazista da oraindik ere, baina guk jada ez dugu edozer onartzen. Lehen espaloitik jaitsi behar izaten genuen; baina egun horiek bukatu dira”, dio harrotasunez. Zapatistek indigenen lur batzuk askatzeaz gain, herrialde osoko indigenen buruak askatzen lagundu zuten: “Inoiz gehiago ez, gu gabeko Mexikorik”.

tura zibilak desegin dituzte, herrialdean da-
goen biolentzia egoeratik babesteko, eta, aldi
berean, iraultzan urrats berri bat emateko.

EKAITZAREN ERDIAN, JABETZA-EZA

Ekaitza deitzen diote zapatistek egungo egoerari. Krisi kapitalista eta klimatikoaren erdian, mundu berria eraikitzen ari dira saiatzen. “Praktikaren bitartez sortzen dute teoria zapatistek”, dio Pedro Farok. Azken komunikatuetan, Jabetza-Eza eta Komuna aldarrikatu dituzte.

“Jabetza eza eta komuna oso planteamendu interesgarriak dira, kapitalismoari xake egiten diotelako. Ekintza guztiz iraultzailea da, zapatistak beti daude etengabe aldatzen eta iraultzen”.

Orain azaldu duten arren, hainbat urte daramate horretan. “Lur berreskuratutako” dituzte zapatistek, eta lur horiek antolakundearenak dira. Ez dute inoren jabetza paperik, eta bertako fruitua lantzen duenarentzat da. “Horrek komuna sortzen du, jabetza hori ez da inorena”.

Faroren ustez, horren ondorioen balorazioa egiteko itxaron egin behar da, baina “ekintza sinboliko gisa, balio handia” duela uste du: “Kapitalismoaren barruan dugu, guztiari ezartzen diogula jabetzaren zentzua. Jabetza kenduta, zer geratzen da? Mota honetako esperientziei ekarpena egiteko balio du. Zapatistentzat kontua hori da: nola hautsi sistema kapitalista? Nola zartatu harresia? Munduan ikusten ari garen eskuinaren gorakadak ez al du bestelako alternatibarik?”.

NARKOAREN ESTATUA

Aipatu bezala, muturreko egoera da orain Chiapasen. “Lehen, Mexikoko Estatuak zapatistari eraso egiten bazion, nazioarteko komunitatearen presioa genuen. Narkoaren aurrean, ordea, zer egin dezakegu?”, galdetu du Lupitak.

Narkoaren arazoa lehegailua da: “Mutiko oso gazteak dira, ez dute inongo etorkizunik. Batez beste 2-3 urte irauten omen dute, eta 20 urtetik beherakoak dira hildakoak”, azaldu du Lupitak. Baina arazoak ez du irtenbide errazik: “Pobreren armada amaigabe bat dute”.

Felipe Calderonen gobernuak “gerra” deklaratu omen zion narkoari. Baina gauzak okertu besterik ez dira egin. Eta, egun, “inoizko gobernurik progresistena” egonik ere, gauzak ez doaz askoz hobea.

Mexikoko demokraziaren historia ezagutzeko atzera egin behar da apur bat. Partido Revolucionario Institucional (PRI) alderdiak gobernatu du herrialdea ia 60 urtez. Pedro Farorentzat “diktadura” izan dira, “zalantzarik gabe”, PRI-ren gobernuak. “Indarkeria



Yolandaren denda, emakume indigenek egindako eskulanekin.

Kokainaz gain, trafikatzailiek beste “merkantzia” bat ere mugitzen dute: pertsonak. Lehen, migratzaileen hamar pasabide zeuden Guatemalatik Chiapasera; egun, 90 baino gehiago dira

sistematikoa izan da, eta beste dikta-duretan izandako hildako, torturatu eta desagertu kopurua baino handiagoa utzi du PRIk”.

Movimiento Reconstitución Nacional (Morena) mugimenduak buelta eman zion egoerari, eta lehen aldiz, “benetako” ezkerreko alderdi batek irabazi zituen hauteskundeak –ordurako PRI deskonposizioan zegoen, 2000tik Partido Acción Nacional (PAN) eskuindarrak irabazi baitzituen hauteskundeak-. Andres Manuel Lopez Obrador (Amlo) izan da presidentea orain gutxira arte, eta egun, Claudia Sheibaum da. Diskurtsoz eta irudiz ezkerrekoa da, baina “berdin-berdina” da Chiapasko militanteentzat: “Edo okerragoa gauza batzuetan. PRIk berak ere egingo ez zituenak egin dituelako Morenak”.

Salatu dutenez, proiektu neoliberalen beste urrats bat gehiago ari dira ematen: “PRIren ametsa gauzatzen ari dira, turismoaren garapena bai, baina ez

aberastasunarena”, dio Farok. Indigenen arloan, garapenerako egitasmoak sustatzen dituzte, dirulaguntzak eskainita eta abar. “Baina horren trukean, desmobilizazio politikoa eskatzen diete komunitateei. Zapatistekin edo bestelako egitasmoekin kolaboratuz gero, dirulaguntzak kentzen dizkiete”.

Morenak lortu ditu Mexikon sekulako aurrerapausoak. Adibidez, jubilarioaren prestazioa sortzea, lehen aldiz historian, eta herri sektore asko pozik daude aldaketa horiekin. Ordea, gaur gaurkoz, ez du indarkeria sistematikoa geratzeko urrats nahikorik egin, ez eta, itxuraz, egiterik ahalko. Amlover askok ez dute ikusi nahi, Mexikoko Estatu dela munduko ustelenetako eta biolentoenetako bat.

MUNDUARENTZAKO EREDU BATZUETAN

Zapatistak, beraz, ekaitzaren erdian aurrera doaz. Albo batean estatua eta bestean krimen antolatua. Biak dira neoliberalismoaren muturreko formak, betikoentzat betekoa dakartenak.

Neozapatismoak munduko ezkerrentzat eredu bat eskaini zuen. 1990eko hamarkadan, iraultza sozialisten eredu ekonomikoak porrot egin zuenean, autoritarismoen kontrako ikuspegia handitu zenean, “beste mundu berri batean” sinisten zutenen aldeko itsasargia izan ziren zapatistak. Mexikon, lehenik, eta Latinoamerikan ostean, indigenen esku-bideen aldeko iraultza izan zen.

Haien garaipen bakoitza txiki-txikia da. Hor, basoan galduta, komunitate ba-

tean geratzen da. Baina, autonomiaren eraikuntzaren bitartez, sistema kapitalista desafiaturen ari dira. Zapatistek, hain zuzen, ez dute mundu osoa aldatzeko biderik, baina autonomiaren eraikuntzaren bitartez, mundu osoa interpelatzen dute.

Estaturik gabeko iraultza egiten ari dira zapatistak. Miseria gorrian dagoen herrialde batean duintasuna eta esperantza landatuta. Ez da mundu osorako eredu bat, baina erakusten dute baietz, toki jakin horretan posible dela beste mundu bat eraikitzea. Eta, noski, bestee-tan ere bai. ●

**DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA**

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu

SIGACUS

📞 943 453 588 · www.sigacus.com

mitxelena *Koop*

MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen
mekanizazioan espezialistak

LRQA CERTIFIED AS 9100

LRQA CERTIFIED ISO 9001

Eziago industrialdea 21, HERNANI

📞 943 55 25 12 - 16

✉ info@talleresmitxelena.eus

🌐 www.talleresmitxelena.eus

Mugikortasun arazoak dituzten haurrekin baso-eskolara, beldurrak eta mugak gainditzen

Mugitzeko eta ibiltzeko zailtasunak dituzten 5 urteko bi ikasleri asteroko baso-eskola saioa egokitu zaie Irungo ikastetxean: muga eta beldur artean hasitako erronkak onura, garapen eta ikasketa handiak izan ditu. "Oso babestuta dauden ikasleak dira eta basoan aske uzteak asko lagundu die".

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  TOKI ALAI

Naturan hezi EHUren udako ikastaroan azaldutako esperientzia kontatzeko eskatu diogu Nahia Aguado Alvarez. Haur Hezkuntzako irakaslea da, Irungo Toki Alai ikastetxean. 5 urteko haurrekin baso-eskolara joaten dira asteazkenero, ikastetxetik nahiko gertu dagoen natur eremu publiko batera; "xarma berezia duen basoa da, espezie ugari aurki daiteke". Bertara iristeko, baina, malda handia igo beharra dago eta ez da samurra, batez ere haur txikientzat, eta zer esanik ez mugikortasun arazoren bat baldin badute.

5 urteko gelara igaroko ziren bi ikaslek mugikortasun arazoak zituztela-eta, galdera sortu zen eskolan: bai malda igotzeko, bai baso-eskolan eroso eta ongi aritzeko, zer egin eta nola jokatu? Umeetako bat moldatzen da ibiltzen, baina esertzeko, altxatzeko eta hainbat mugimendutarako zailtasunak ditu. Bestearen kasuan, trabak handiagoak dira: garuneko arazoen ondorioz, ibiltzeko zailtasunak ditu, baita esertzeko eta altxatzeko ere. "Jakina, ez genuen plan-

"Gainerako ikaskideak bezala basoan zutik egon daitezen alboan etengabe heldu bat izatea da modua? Ala eskularruak eta belaun-babesak jantzi eta utzi egingo diegu nahieran aritu daitezen?"



teatu ere egin haur horiek basora joan gabe uztea", dio Aguadok. Baso-eskolako kideekin harremanetan jarri ziren eta hasieran pentsatu zuten aulki egokitua erosi beharko zutela, bereziki mugikortasun arazo handienak dituen haurarentzat, baina dirurik ez zutela kontatu du irakasleak. Eta hara non, Kemen Fundazioa deskubritu zuten.

Kemen Fundazioa desgaitasunen bat duten pertsonen kirol kluba da eta joëlette izenez ezagutzen den bizikleta egokitua utzi zieten, musutruk. Bi pertsonen artean eramaten da (batek aurretik tiratzen du, lera bailitzan; besteak atzetik egiten du indarra) eta haurra maldan gora basoraino eroso eramatea ahalbidetzen du. Fundazioko lehendakari Fernando Michelinaren hitzetan, baliabide eta material egokitu ugari dute eta mugikortasun arazoak dituen edonork eska ditzake, doan utziko diete mendira joan ahal izateko edo kirola egiteko. Are gehiago, zenbaitetan boluntarioak ere joaten dira, bizikletan edo bestelakoren batean haurra eramateko laguntza behar izanez gero.

Behin basoan, zer? Nola jokatu? "Haur horiek basoan gainerako ikaskideak bezala zutik egon daitezen alboan etengabe heldu bat izatea da modua? Ala eskularruak eta belaun-babesak jantzi eta utzi egingo diegu batzuetan zutik, bestetan lau hankatan, nahieran aritu daitezen?" gogoetatu zuten irakasleek, Nahia Aguadok azaldu duenez. "Hainbat



muga gure buruan daudela konturatu ginen, baina haiek direla eroso sentitu behar dutenak, ez gu, eta beraz, eskularruak eta belaun-babesak erosi eta hurrei aukera eman genien nahi zuten moduan aritzeko, lurrean gusturen arituko ziren moldean”. Emaitza: “Ikusi dugu espazio berrira euren modura egokitu direla, helburua ez dela bilatzea nola iritsi daitezkeen besteak bezala, baizik eta nola ahalbidetu iritsi daitezen beraien modura”.

Eremu lau batetik basoko espazio irregularrera igarotzea, adarrak, hariak, zubiak, gora-beherak, zintzilikatzeko zuhaitzak... izatea entrenamendu handia da gorputzarentzat, dio Aguadok. Denontzat da onuragarria, baina haur hauek sarri gainerakoek baino aukera gutxiago izan ohi dute basora joateko: “Ebakuntza bat bestearen atzetik, zailtasunak eta bestelako lehentasunak dituzte, eta mugikortasun arazoekin basora joan ahal izatea beti ez dute erraza familiek”.

NOLA HASI ZEN, ETA NOLA BUKATU

Prozesua ederra izan dela kontatu du irakasleak, eta batak eta besteak izan duten garapena, sekulakoa. Mugikortasun zailtasun handienak zituen ikaslearen kasuan, basora bizikleta egokituan eramaten zuten hasieran, eta malda oinez igotzen bukatu zuen, lagunak eskutik helduta. “Pentsa zenbat gauza barnebiltzen dituen irudi horrek”. Bere garapen fisikorako, baso-eskola gimnasioan tope aritzearen modukoa izan dela dio Aguadok, eta asko hobetu duela.

Beste ikasleak masa muskularra irabazi du, baina batez ere beldurren aurrean eman dituen aurrerapausoak nabarmendu ditu irakasleak. Taka-taka erabiltzen zuen egunerokoan, baina basora ezin zuenez tramankulua eraman, beldur handiak zituen hasieran, negar egiteraino. Heldu bati itsatsita egoten zen. “Bere esperientzia da lurrrera erortzean, hormigoira, mina hartzea, baina besteak beste ikusi zuen basoan lurrrera erortzea ez dela hain mingarria. Beldurrak gaitzen joan zen, eta nahiz eta leku zailenetan helduaren laguntza eskatu edo lau hantakan mugitu, gehienetan bere kabuz oinez moldatzen zen; sarri erortzen zen, baina berehala altxatzen zen, la-sai asko”. Hori ere erronka izan da irakasleentzat, “erortzen zela ikusi eta



segituan atzetik ez joatea; ongi baldin bazegoen eta ez bazuen gure laguntza eskatzen, ez genuen zertan joan. Bizitza osoan oso babestuta egon diren ikasleak dira, basora joan ahal izan daitezen adibidez bakoitzari heldu bana esleitu behar zaio, bestela ezin dugu haiekin basora joan, eta beti pertsona nagusi bat baldin baduzu zure alboan, harenganako menpekotasuna sortzen zaizu. Basoan nahiko libre uzteak, heldurik gabe seguru sentitzen den eremu batean mugitzeak, independentzia eta autonomia eman die”.

FISIOTERAPEUTA ERE, BASORA

Fisioterapeutak rol garrantzitsua izan du honetan guztian. Basora irten ahal izateko helduen laguntza behar zute-lako batetik, eta batez ere ikasle horiei eskola-orduetan dagokien fisioterapeutak bere jarduna basoan askoz hobeto aprobeztatu zezakeela sinetsita, proposatu zioten ikasle bakoitzarekin zituen saioak basoan egitea, eta Laxia Urresti fisioterapeutak baietz esan zuen. Urrestiren hitzetan, esperientzia

**“Hasieran, heldu bati
itsatsita egoten zen.
Beldurrak gainditu ahala,
bere kabuz moldatzen joan
zen; sarri erortzen zen,
baina berehala altxatzen
zen, lasai asko”**



zoragarria izan da, mugikortasuna lantzeko basoak eskaintzen dituen baliabide anitzengatik, baita basoan haur guztiekin batera egin dituelako saioak –ikastetxean haurra gelatik atera eta bakardadean jardun behar duzu, fisio saioan-. Lanketa ez da soilik fisikoa

izan, ikasleek beldurrei aurre egitea eta beldurrak gainetik kentzea, eroriz gero berdin diola erakustea eta urratsez urrats aurrera egiten segitzea izan da bere lanaren zati garrantzitsuenetakoa.

Azken finean, baso-eskolan duten oinarrietako bat arriskuaren pedagogia dela adierazi du Nahia Aguadok, haurrak eurak izan daitezten dituzten mugak deskubritu eta beraien burua ezagutzen doazena, noraino iritsi daitezkeen jakiteko, zuhaitzera igotzean, enbor baten gainetik oreka mantenduz ibiltzean, eremu gorabeheratsuetan lasterka aritzean... “Gaur egungo gizartean, bereziki hirietan bizi diren haurrek mugak dituzte eguneroko oztopo: kontuz autoekin, ez igo horra, ez ukitu hori, ez joan hain azkar, espaloitik ez atera, erne errepeidea gurutzatzerakoan... Haurrak bizi dira kanpotik datozen etengabeko agindu eta mugez inguratuta, eta horrek nabarmen kalteetzen du beren burua behar bezala ezagutzea. Nola jakingo dut noraino heltzeko gai naizen?”.



Ezkerreko orrian, ikasturte hasiera: ikasleetako bat helduez lagunduta igotzen zen baso-eskolara, eta bestea bizikleta egokituan eramaten zuten. Goiko argazkian, ikasturte amaieran, bi haurrak gainerako ikasleekin batera basora igotzen, beren kabuz.

Aipaturiko bi ikasleez gain, mugikortasun zailtasunik ez baina aniztasun funtzionala duen 4 urteko haur bat ere eraman zuten baso-eskolara. Adinagatik egokitzen ez zitzaion arren, hala erabaki zuten, aurrez izandako esperientziak aintzat hartuta. “Ikusi duzu zer nolako onura egiten dien aniztasun funtzionala duten ikasleei baso-eskolara joateak. Autismo Espektroko Nahasmendua duten ikasleen kasuan esaterako, ikastetxeetako akustika zaratsutsuak eta argi ez naturalek estres handia sortu ohi diete, eta hori guztia erabat aldatzen da basoan, estres maila jaitsi eta bat-batean izugarritzko aurrerapausoak ikusi dizkiegu harremanetan, hizkuntzaren garapenean, jarreran...”

ESKOLA, JESARRITA EGOTEKO LEKU HORI

Kontuak kontu, baso-eskola ikasle guztien ikasketa eta garapenarentzat da onuragarria, eta ikerketek hala frogatzen dutela jakitun, beharbada beste nonbait kokatu beharko genuke fokua:

“Haurrak bizi dira kanpotik datozen agindu eta mugez inguratuta. Nola jakingo dut noraino heltzeko gai naizen?”



eskola barruan hainbeste orduz eserita egoteak ez ote die kalte egiten ikasleei? Irungo Toki Alai ikastetxean, beste eskola ugaritan egiten duten moduan, Haur Hezkuntzan mugimendu autonomoaren filosofia praktikatzen dutela eta haurrak gelaz gela mugitzen direla kontatu digu Aguadok, “baina nahiz eta eskura ditugun aukerak baliatzen ditu-

gun, ukaezina da eskolak eremu itxiak eta patioak hormigoizko zoru lau hesituak direla. Arkitekto bati entzun niona errepikatuz, eskolak sortzeko planoak kartzelak sortzeko planoetatik ateratzen dira, zer pentsatua eman beharko liguke. Haurrak hainbeste babestu nahi horretan, neurritz kanpoko emaitzak ditugu”.

Luis Larrañaga Gorputz Hezkuntzako irakasleak argi utzi zuen, *Non dago gorputza eskolan?* mahai-inguruan (Larrun, 227): “Ikasleek mugimendu beharra ez dute aseta. Batzuek eskolaz kanpoko ekintzak egingo dituzte, baina egunero ikastetxean ordu ugari pasatzea eta ordu horietako gehienak eserita egotea ez da egokia. Gorputza berez prestatuta dago mugimendurako, ez orduak eta orduak eserita egoteko, eta horrek ondorioak ekartzen ditu”. Horregatik ere, ikasle guztientzat aberasgarria da baso-eskola, lau pareten artean atera eta naturara salto egitea, eta Toki Alain frogatu dute mugikortasun zailtasunak ez direla oztopo, putzu, lokatz eta zuhaitz artean ikasteko. ●

AEBetako Greenpeace desagerraraz dezake Dakota Access oliobidearen enpresaren salaketak?

900 milioi dolar inguru eskatzen dizkio Energy Transfer Partners enpresak AEBetako Greenpeace erakunde ekologistari, 2016 eta 2017an oliobidearen aurkako protestetan kalteak eragin izana leporatuta. "Epaiketa honetan porrot eginez gero, Greenpeace justizia klimatikoaren aldeko borrokatik kanpo gera liteke", adierazi du elkarteak.

 **JULEN UGARTEMENDIA CARCEDO**  **NO SPIRITUAL SURRENDER**

Energy Transfer Partners (ETP) enpresak aurkeztutako salaketaren ondorioz egingo da AEBetako Greenpeace gobernuz kanpoko erakundearen aurkako epaia. Enpresak 300 milioi dolar inguru eta kalte-ordain gehigarri bat eskatzen dizkio Greenpeace-ri, guztira 900 milioi dolarreko ordaina ekar dezakeena, *Le Monde*-k informatu duenez. 2016an eta 2017an Dakota Access (DAPL) oliobidearen aurkako protestetan kalteak eragin izana leporatzen dio. Protestek oihartzun handia izan zuten, oliobidearen proiektua egiterako orduan ez zituztelako kontuan hartu bertako jatorrizko herriak. Salatu zuten, Mississippi eta Missouri ibaie-tan zein beren lur eta "eremu historiko eta sakratuetan" kalte larriak eragin zitzakeen oliobideak. Enpresak balizko kalte horiek ukatu zituen.

Enpresa amerikarrak SLAPP prozedura bat abiarazi zuen -parte-hartze

publikoaren aurkako demanda estrate-gikoa- Greenpeace-aren aurka. Prozedura horrek denbora eta diru asko eskatzen dituela adierazi du Greenpeacek, eta prozesua bera "zigor" bat dela. "Epaiketa honetan porrot eginez gero, Greenpeace justizia klimatikoaren aldeko borrokatik kanpo gera liteke", adierazi du gobernuz kanpoko erakundeak. Epaiketa 2025eko otsailean eta martxoan egingo da; hala ere, Greenpeacek hau ziurtatu du: "Erakundea isilarazi nahi duten arren, ez dute lortuko".

FRACKING-EAN JATORRIA

2016. eta 2017. urteetako protesten inguruko salaketa izan arren, oliobidearen kasua urrunetik dator, Greenpeacek informatu duenez. 2008a fracking-aren -lurpetik erregai fosilak ateratzeko haustura hidraulikoaren teknika- boom urtea izan zen. AEBak munduko petrolio ekoizlerik handienak bihurtu ziren,

eta industriak metodo errazagoa behar zuten produktua petrolio-findegietara eta munduko merkatuetara eramateko. Horrela, 2014ean DAPL oliobidearen proiektua proposatu zuten, petrolio gordina Ipar Dakotatik Illinoiseraino eta gero golkoko kostalderaino eramango zuena. Gaur egun, lurpeko 1.900 kilometroko oliobide horrek 750.000 upel petrolio garraiatzen ditu egunero.

MATXINADARI, ERREPRESIOA ETA BORTIZKERIA

Standing Rock sioux jatorrizko herriko kideek arbuiatu egin zuten proiektua, eta AEB osoko 300 triburen eta milaka ekintzaileren laguntza izan zuten oliobidearen eraikuntza geldiarazteko, Rafael Gonzales ekintzaileak ARGIA-n kontatu zuenez. Matxinada hedatu egin zen 2016ko udaberrian, konpainiak erabaki zuenean petrolioak zeharkatuko zituela Missouri eta Mississippi ibaia,

Standing Rock sioux jatorrizko herriko kideek arbuiatu egin zuten proiektua, eta AEB osoko 300 triburen eta milaka ekintzaileen laguntza izan zuten oliobidearen eraikuntza geldiarazteko.



Oahe aintzira eta Standing Rock sioux erreserbako lurak. Mobilizazioak eta kanpalekuak antolatu zituzten, haien gorputzak obra makinen aurrean jarri zituzten, DAPL proiektuari milioika euroko galerak eragin zizkieten eta protestek nazioarteko arreta piztu zuten.

"Munduan utzi ditugun lorratzak suntsitzean, gobernuak herri bezala suntsitzen gaitu. Ereduok defenditu behar ditugu, bestela gure mundua amaituta dago. Petrolio konpainiari gure historia desegiten uztea, gure arbasoak, gure bihotzak eta arimak, ez al da genozidioa?", adierazi zuen LaDonna Bravebull Allard-ek, lehen kanpalekua antolatze-ko deia egin zuen andreak, ARGIAk jaso zuenez. *ReZpect Our Water* (Gure Ura Zaindu) amerindiar gazte erakundeak Standing Rocketik Washingtoneraino martxa egin zuen.

Mugimenduaren indarrak enpresaburuak asaldatu zituen, eta AEBetako Gobernuak esku hartu zuen. "Polizia bortizkeriarekin eta errepresioarekin erantzuten hasi zen: gomazko pilotak, granada nahasgarriak, entzumena kaltetzen duten armak, borrak eta taser pistolak, besteren artean", azaldu zuen Gonzalesek ARGIAN. Manifestarien aurka zakurrak erabili zituzten, baita urkanoiak ere, zeropeko tenperaturen

testuinguruan. Gonzalesek salatu zuen proiektuaren atzean zeuden Enbridge eta ETP enpresek Tiger Swan bezalako mertzenario enpresak kontratatu zituztela.

OBAMAREN GOBERNUAK MOTELDU, TRUMPEK BERRABIARAZI

2016ko uztailean, Standing Rock herriko ordezkariak demanda bat aurkeztu zuten oliobidearen onarpena blokeatzeko asmoz. Hainbat pertsona eta eragilek eskatu zioten Obamaren administrazioari baimenak blokeatzeko, eta bankuei proiektua finantzatzeari uzteko -BBVak Standing Rockeko proiektuan 120 milioi dolar inbertitu dituela salatu zuen Gonzalesek-. Gonzalesen arabera, Obamak proiektua moteldu besterik ez zuten egin, baina ez geldiarazi.

Presidente izendatzean, Donald Trumpen lehenengo erabakietako bat oliobidearen eraikuntza bultzatzea izan zen, eta 2017. urteko ekainean martxan jarri zuten. ETP enpresaren jabe Kelcy Warrennek 250.000 dolar eman zizkion Trumpen hautagaitzari bere lehenbiziko hauteskunde kanpainan, eta 10 milioi dolar bildu zituen 2020ko berrautaketa ahaleginerako, Greenpeacek salatu zuenez. ETPk Greenpeace eta

beste talde ekologista batzuk salatu zituen, eta epaiketarako kontratatu zuen abokatuen bufetea Trump presidentearen bera izan zen.

Terrorismoa, iruzurra eta difamazioa egitea leporatu zien enpresak talde ekologistei, "mota guztietako aktibitate kriminalak", ARGIAk jaso zuenez, "ekoterrorismotik" droga trafikoraino.

EZ DIOTE BORROKA EGITEARI UTZI

Oliobidea eraiki zuten arren, Standing Rock-eko protestak ez ziren eten. Egingako salaketan ondorioz, 2020an epaile federal batek ingurumen-inpaktu azterketa oso bat egiteko agindu zuen. Hala ere, ez zen bete oliobidea ixteko agindua. Gaur egun, sioux jatorrizko herria oraindik ere zera eskatzen ari da: "Armadak oliobidea itxi eta ingurumen inpaktuaren azterketa egoki bat egitea, eta ez erregai fosilen industriari prestatutako bat".

ETPren salaketak dio Greenpeace izan zela protesten antolatzailea, eta ez sioux herria edo uraren babesle indigenak. "Demandak egin ez genituen gauzak leporatzen dizkio Greenpeaceari, eta defentsa publiko arrunta kriminalizatzen saiatzen da", salatu du Greenpeacek. ●



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

2025erako egutegia prest

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Irailako lanera buelta gogorra egiten ari zaizula eta uda amaiera depresibo samarra duzula? Bada, animo goibela errematatzeko berehala hasiko dira –dagoeneko hasiak ez badira– “konturatzerako mahatsak jaten ari gara” edo “urtea ia joan zaigu” bezalako esaldiak harategian, igogailuan eta garagardo artean. Eta ARGIAk aukera aprobetxatu nahi du 2025ean pentsatzen ari diren horiei datorren urteko egutegia eskaintzeko.

Azken urteetako formula bera izango dugu 2025eko ARGIAren egutegian. Efemerideak. Ez edozein efemeride, historiografia ofizialak eta hedabide handiek beren agenda eta informazioetatik kanpo utzi ohi dituzten historiaren pasarteak, baizik.

GOGORATZEN NON ZEUNDEN DUELA 50 URTE?

1975 historiko hartatik mende erdi pasata, datorren egutegiak urte borbil hori baliatuko du Euskal Herriaren historia markatu zuten gertakari asko kronologikoki kontatzeko –atxiloketak, atentatuak, Txiki eta Otaegi, greba orokorrak, Francoren heriotza...–. Egun eta hilabete nahasi horiek bizi izan zituztenek memoria egin eta non zeuden oroitutatu ahal izango dute eta egon ez ginenontzat historia klase polit bat izan liteke.

Ez dira, noski, 1975 hartako kontuak bakarrik izango egutegiko orrialde bakoitzaren atzealdean irakurriko ditugunak. Historia ofizialari interesatzen ez zaizkion pertsona asko ezagutuko ditugu, egungo mundua hobeto ulertzen lagunduko diguten historiak. Eduardo Gleanok zioen bezala, “oroimen histo-

rikoa ez da iraganeko nostalgia hutsa, tresna bat da gaurko injustiziaren aurkako borrokan”.


Egutegirako prestatutako eduki guztia www.argia.eus/efemerideen-kanala loturan jasota geratzen da, gainera. Azken sei urteotan bildutako informazio guztia kanalean dago.

EUSKARRI BERRIAK

Egurrezko euskarri berriak izango ditu aurten ARGIAk, Donostiako Muiñagorri inprentan eginak. Garai batean tailatutakoak baziren ere, orain laserrarekin egindako irudia izango dute ARGIAren logoa.

Artikulu hau irakurtzen duzunera-ko egutegiaren eta euskarriaren aurre-salmenta martxan egongo da ARGIAko Azokan eta Durangorako ere pilak kargatzen hasita egongo dira. ●

Noiz hasi ginen kantatzen?



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Geissenkloesterle (Alemania), dela 42.000 urte. Danubio ibaiaren arroko kobazuloan bizi zirenek txirula bat egin zuten hegazti hezurrak eta mamut bolia erabiliz. Garai bertsuan, Esloveniako Divje Babe kobazuloko biztanleek ere txirula bat egin zuten hartz baten femurra baliatuz. Horiek dira orain arte aurkitu eta datatutako musika tresnarik zaharrenak. Eta, beraz, bada-kigu ordurako musika egiten zela. Baina hominidoek ez dute tresnarik behar musika egiteko; nahikoa dute ahotsarekin.

Duela 530.000 urte hominidoek hoi-de hezurra gure posizio ia berdinean zuten. Hau da, soinuak egiteko eta kantatzeko gaitasun fisikoa zuten. Zertan hasi ginen lehenago, hitz egiten ala kantatzen? Musikak eta mintzairak jatorri bera dutela dioen teoria eztabaidagai izan da azken hamarkadatan.

Berriki Keioko Unibertsitateko (Japonia) Yuto Ozaki eta Patrick Savage ikerlariak gai horren inguruko ikerlana argitaratu dute *Science Advances* aldizkarian. 50 hizkuntzetako abestiak, melodiak eta diskurtoak aztertu ondoren iradoki dute musikak komunikazio modu eraginkorrago eta emozionalago moduan eboluzionatu zuela.

Horrez gain, Savagek berak Australiako Unibertsitate Nazionalako San Passmore buru izan duen beste ikerlan batean ere parte hartu berri du. Global Jukebox doako datu baseko 5.000 abesti ingururen estiloak eta jatorri geografi-



DIVJE BABE PARKE ARKEOLOGIKOA

Divje babeko txirula orain arte aurkitutako musika tresnarik zaharrenetakoa da. 42.000-43.000 urte inguru ditu, Geissenkloesterleko txirulak bezala.

koak aniztasun genetikoa eta linguistikoa jasotzen duten datu baseekin alde-ratu dituzte. Emaitzen arabera, historia musikala ez dago uste bezain lotua hizkuntzari eta genetikari; beste markagai-lu batzuegandik gertuago dago, esaterako, antolaketa sozialarengandik.

Ikerlan horiek musika eta hizkuntzaren arteko erlazioa konplexua eta ani-

tza dela berretsi dute. Iradokitzen dute musikak mintzairaren garapena erraztu zuela, ahozko komunikaziorako oinarri estruktural bat ezarri zuelako. Lanok ez diote izenburuko galderari erantzun zehatzik eman. Baina balio dute gure espeziearen eboluzioaren eta musikaren artean dagoen loturan pixka bat gehiago sakontzeko. ●



BGABEL

Erromatar kartzela Korinton

Erromatar Inperioko hiri gehienetan kartzelak zeudela pentsatu arren, garai hartako espeseteeen arrastorik ia ez da aurkitu aztarnategietan. Berriki, ordea, Matthew Larsen Kopenhageko Unibertsitateko arkeologoak Korintoko erromatar espesetxea identifikatu du. 424. urte inguruan datatu du eraikina, greziar hiri erromatarren esku zegoen garaian

eta populazioa kristautua zegoenean. 1901eko indusketetan jasotako erre-gistroak erabili ditu kartzela kokatzeko, baina presoek utzitako idazkunak egiaztatu dute aurkikuntza: "Legerik gabeko toki honetan sufritzen dutenen patua gailendu dadila"; "Jainkoa, emaiosu ne-gua hemen pasarazi zigun Marinosi hark guri emandako zigorra"... ●

AKADEMIKOEK EUROPAR BATASUNARI

“NARRATIBA BERRIAK BEHAR DITUGU ELIKADURA SISTEMA ALDATZEKO”



GOIURI ALBERDI ETA
AINTZIRA OÑEDERRA
ASUNEK

2020an elikadura burujabetza-
ren aldeko akademiko batzuek
adierazpen bat egin zioten Eu-
ropar Batasunari: Itun Berdearen
erdigunean dagoen hazkunde eko-
nomiko “berdearen” paradigmatik
haratago joateko eskatu zioten.

EBko erakundeek nekazarien
kezka batzuei soilik heldu diete eta
era desegokian, eredu agroindus-
trial eta kapitalistarekiko konpro-
misoa berretsiz. Gainera, begirada
sistemikoa duten politikak aplika-
tzeko ideia alde batera utzi dute, ekoiz-
pen-fasera mugatuta. Testuinguru ho-
rretan, akademiko talde horrek beste
adierazpen bat atera du. Horrela, bada,
adierazpena aletzen saiatuko gara arti-
kulu honetan.

MERKATARITZA ERREFORMA

Merkataritza askearen narratiba eta
prezioetan oinarritutako lehia dira na-
gusi -EB-Mercosur akordioa da adibi-
derik berriena-. Elikadura ez da giza
eskubidetzat hartzen, merkataritza-ne-
goziaioetarako funtsezko mozkin gisa
baizik. Merkataritza-politiken errefor-
ma beharrezkoa da eskala txikiko etxal-
de iraunkoragoak eta bideragarriagoak
babestu eta ugaltzeko. Merkatu birloka-
lizatuak eta lurralderatutako ekonomiak
sortzen laguntzeko ere bai, tokiko mer-
kataritzari lehentasuna emanda.

PREZIO JUSTUAK, SOLDATA DUINAK ETA LURRA ESKURAGARRI

Merkataritzaren liberalizazioa funtsez-
ko faktorea izan da, artifizialki baxuak
diren elikagaien prezioetan eta nekaza-
rien ordainsari eskasean eragiteko. Ho-
netan, EB nekazaritza-produktuen lehia-



FOODGOVERNANCE.COM

kortasuna sustatzen saiatu da. Logika
horren arabera, nekazariak ekoizpen-
kostuak murriztu behar dituzte, ustia-
tegien tamaina handitu, errendimendua
hobetu eta berrikuntza teknologikoaren
bidez lan-kostuak gutxitu. Honek guztiak
baserri kopurua murriztea eragin du.
Batetik, jada 2013an, ustiategien %3k
lurren %52 kontrolatzen zuen. Bestetik,
zahartze demografikoa eta erreleborako
oztopoak direla eta, nekazal proiektuak
desagertuz doaz: 2005etik EBk 4,2 mi-
lioni etxalde baino gehiago galdu ditu.

IKERKETA ETA BERRIKUNTZA (I&B)

Teknologia berrietan inbertitzen da, Eli-
kadura Sistemen eraldaketa bultzatuko
dutelakoan, biodibertsitatearen gale-
ra geldiarazita, elikadura segurtasuna
ziurtatuta eta klima-aldaketara egoki-
tzea bermatuta. Interes industrialei eta
 korporatiboei lehentasuna ematen zaie.
Elikadura-segurtasuna, bizitza jasanga-
rriak, baliabideen erabilera eta klima-al-
daketa arintzeko erronkak bermatzeko
I&B kolektibizatu behar dugu, ikerketa
bertikalista eta zatikatutik, ezagutzaren
merkantilizaziotik eta zientzia-zentris-
motik urrunduta.

AGROKOLOGIAREN BIDEZ ELIKADURAREN ERALDAKETA SUSTATZEA

EBk onartu duen Elikadura
Sistema iraunkorretara trantsizioak
bideratzeko agroekologia gako na-
gusietako bat dela, kontzeptuaren
begirada murriztailean oinarritzen
da, soilik nekazaritza praktika
iraunkor eta ikuspegi zientifiko gisa
ulertzen baitu, dimentsio sozial eta
politikoak alde batera utzita. Agro-
kologiaren begirada holistikoak

gure mundu interkonektatuaren komple-
xutasunak jorratzen ditu, diziplinarteko
ikaskuntza, praktika iraunkorrak eta go-
bernantza-ingurune egokiak sustatzen
ditu, Elikadura Sistemak eraldatzeko.

ELIKADURA SISTEMEN GOBERNANTZA DEMOKRATIZATZEA

2024ko urtarrilean EBk "Nekazaritzaren
Etorkizunari buruzko Elkarriketa Es-
trategikoa" abiarazi zuen. Foro horrek
EBko nekazaritza-ikuspegi partekatu bat
emateko helburua du. Bertan elikadura
kate osoko alderdi interesdun nagusiak
biltzen dira, elikadura industriako pre-
sio-talde handiak, baita GKE batzuk ere.
Botere-harremanei behar bezala heltzen
ez bazaie, arriskuan jartzen da gober-
nantza demokratikoa. Bidezko elikadura
trantsizioek bestelako gobernantza-pro-
zesuak eskatzen dituzte, gardentasunera-
ko, legitimitaterako eta partaidetzarako
mekanismo argiekin.

Akademikoen talde horren arabera,
EBk narratiba berri bat garatu behar du,
oinarrituko bost gai horiek bilduko dituena.
Eskuinerantz jo duen Europa honek, ea
horretarako gaitasunik erakusten duen. ●

A ZE FAUNA!



IÑAKI SANZ-AZKUE

UR LASTERRETAKO ERREGINA



IÑAKI SANZ-AZKUE
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

Errekastoa bizi doa harri eta har-kaitz artean. Ur salto txikiak, ur lasterrak eta putzuak nahasten dira ibilguan zehar. Hotza dago ura, baina hala du gustuko uhandre piriniotarrak. Izan ere, korrontearen kontra igeri egitera ohituriko anfibio txiki honek ez du edozein bizitoki aukeratzeko. Baldintza bereziak behar ditu, eta agian, horrek berak egiten du berezia espeziea. Uhandre piriniotarra arde kolorekoa da, zapala eta azal lakatzekoa. Hasiera batean, estetikoki ez oso polita, baina behin ikusita, ezingo duzu unea ahaztu. Mundu osoan soilik Pirinio inguruan dagoen animalia bat topatzea ez baita eguneroko kontua izaten.

Uhandre piriniotarrak 400 metro inguruko altueratik hasi eta 2.500 metro inguruko altuera arteko errekek ditu gustuko batez ere. Baina ez guztiak! Ondo oxigenaturikoak, garbiak eta 15°C baino hotzagoak egongo direnak urte osoan. Hargatik, Pirinio goi aldeko errekaen zalea da, nahiz eta altuera

baxuan ere aurkitu izan den Euskal Herriko erreka batzuetan. Euskal Herrian ipar ekialdean du bere banaketa: Iparraldean eta Nafarroan. Gipuzkoan, Leitzarango ibar batean baino ez da aurkitu.

Uhandre piriniotarrak buru zapala du, harri azpian ezkutatzea baitu gustuko eta hala eutsiko dio mendian behera datorren ur korronteari. Horregatik, harri askoko edo zirrikiz beteriko arrokez osaturiko errekek gustatzen zaizkio. Sedimentu gutxiak. Bertan aurkituko ditu, era berean, erreketako makroornogabe txikiak. Bere bazka.

Beharizan horiekin, ez da harriztekoa uhandrea erreka garbien indikatzaile moduan hartzea. Aragoi inguruan ere oso ondo erroturik dagoen ezagutza da eta hortik aragoieraz duen izena ere: *Guardafuens* (erreken zaintzailea).

Uhandrea izanik, anfibioa da, lau hanka ditu eta isatsa. Isatsa lodia izan ohi du. Arrek batez ere, ur lasterretan igeri egin ahal izateko darabilte; baina

UHANDRE PIRINIOTARRA

Calotriton asper

TALDEA: Ornoduna/Anfibioa.

NEURRIA: 10-15 cm isatsa barne.

NON BIZI DA? Erreka harritsu, hotz eta ur lasterduetan.

ZER JATEN DU? Erreketako ornogabe txikiak.

BABES MAILA: *Interes bereziko* izendatua. EAEn eta European babestua.

era berean, buztan hori bera estalketan emea eusteko ere erabili ohi dute.

Etsaiak ere baditu, ordea, uhandre piriniotarrak. Amuarraina, esaterako. Horregatik, uhandrea desagertu den erreka eta ibai batzuetan, gizakiak askaturiko amuarrainak hartzen dira horren erantzule. Aranzadi Zientzia Elkarteak Goizuetako udalerrian berriki egindako ikerketa batean ere, uhandre piriniotarra aurkituriko erreka gehienetan amuarrainik ez dagoela behatu da, nahiz eta oso puntu gutxitan, bien presentzia ikusi den.

Klima aldaketaren testuinguruan, uhandre piriniotarra ikerketarako espezie interesgarria izan daiteke. Izan ere, altuera baxuenetarik populazioak, Euskal Herrikoak asko, izango dira ziur aski horren eragina jasango dutenak, eta beraz, haien jarraipena interesgarria izan daiteke zientziarako. Edo batek daki, haien banaketaren mugan egonda, ez ote diren Euskal Herrikoak izango tenperatura beroagoi aurre egiteko prestutasun gehiago izango dutenak genetikoki.

Kontuak kontu, espezie txiki honek erakusten digu, beste behin, ikusezinak egiten zaizkigun animalia askoren ikerketek arazo globalei buruzko erantzun batzuk bilatzen lagun diezaguketela. Gizakiak ez ezagutzeak ez baitu esan nahi espezie horrek garrantzirik ez duenik. ●

CALÇOTA, KATALANEN TIPULA MORROA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Baratzeraiko udako nagiak astindu ditzagun. Lehen udazkenean izaten zen sagardoaren txotx denboraldiaren hasiera, orain neguaren zilborrean izaten dugu. Ezagun katalanen bat duen edozeinek pentsa dezake sagardo gozoa calçot tipula erreekin dastatzeko atzeratu eta sortu zela txotx bolada berria.

Sagardoa gorabehera, irailean heldu baratzeraiko calçotari. Tipula (*Allium cepa*) da calçota, zenbaitek formagatik porrua (*Allium porrum*) dela badio ere. Izan ere, izena bera ere hortik dator: tipula landatu eta sortzen den landarea lurreztatzearen lurreztatzeaz burua egin beharrean porruaren forma luzexka sortzen du. Calçot katalaneko “calçar” aditzetik dator, lurreztatu esan nahi du edo, Euskal Herriko ipar-ekialdean esaten duten eran, “ondoztatu”. Tipulak lur azalean egiten du burua eta bururako grina hori piztu orduko lur azala gorago jartzen bazaio burua han egin behar, eta gero eta gorago, eta azkenean buru borobil zapala izan beharrean luzanga izango da.

Calçotak ziklo oso luzea du. Tipula berezi horren hazia udazkenaren amaieran, azaroa aldera, ereiten da, otsailean landatu eta ekaina-uztaila aldera tipula burua jaso. Honaino tipularen ziklo arrunta du. Tipula buru lehor hori, konterbartzeko jaso edo jan beharrean, irailean edo urriaren hasieran landatuko da. Horrekin bigarren urteari ekiten dio, berak eta baratzezainak. Goiko muturra moztu eta landatzen dira, ilada artean 80 zentimetro eta burutik burura 30 utzita. Buruaren erreserbetatik kimu berriak etorriko dira, 5-15 artean buruko. Sorta hori lurreztatu beharko da; kimu horiek luzatu ahala haien ipurdia lurra eman. Aipatu bezala, horrek kimua luzatzera behartzen du, bide batez tipula



LAIJA SOLANELLAS / WIKIMEDIA

buru forma izan beharrean porru itxura luzea hartzen du (lurpeko zatia 15-25 cm), zurituaz eta bere dasta finduz. Zuritutako barazkien dasta beti aldatzen da, sotilagoa da, mikaztasun dotoreago bat garatzen dute: apioak (*Apium graveolens var. dulce*), kardua (*Cynara cardunculus*), urazak (*Lactuca sativa*), eskarolak (*Cichorium endivia*) eta abarrek.

Lurreztaketa hiruzpalau aldiz egin behar da, eta noiz atera eta erre zeuk erabaki, baina burua jarri dugunez, bi urtekoa izango da udaberrian, eta zildu, loratu eta hazia emateko joera azkar piztuko zaio, eta beraz, luze etsi gabe jaten hasi. Jeneralean azaro eta apiril artean jaten da; onena garretan erretzea da, jaterakoan kanpoko hosto erreak kendu eta barruko erregosiak jan.

Landarea beharrean tipula buruak eskuratu behar dituzu. Eta merezi ote duen? Nire ustez bai. Saioa egin eta esango diguzu. Atxondoko Biezko Base-

rriko Aner lagunak “Blanca gran tardana de Lleida” deritzan aldaera erabiltzen du, Catalunyan sonatuena. Tipula gorriekin ere saioak egin izan dira. Honako tipulina egiteko erabiltzen den “Babosa” aldaera proposatzen du berak.

Behar bereziak bi ditu. Batetik, janari asko eskatzen du, aurrez ongarrri ondu-ondurekin eskuzabal ongarritutako lurra nahi du. Hurrengo urtean gogoan izan, ongarritu gero tipula horiek jarri nahi dituzun lurra aurreko uztarekin. Eta, bestetik, gogoratu, tipula da: tipulak gorrotatzen ditu lur motelak, astunak, buztintsuak eta urasetutakoak. Lur harroak maite ditu.

Calçotari ez baina bere sasoi berean hemen lantzen den tipulari tipula morroa edo tipula morrona esaten zaio. Burua jartzen da baina ez dago lurreztatzeke ohiturarik. Burutik sortutako kimu horiek bere motzean jaten dira negu partean. ●

HABELARTE

LEITZAKO FESTETAKO SUKALDEA,
BASERRITAR AGROEKOLOGIKOEN ESKUTIK

GARAZI ZABALETA

Bigarren urtez segidan hartu du Habelarte baserritarren elkarteak Leitzako festetan, Gaztetxean, aforiak emateko ardura. Nafarroako Mendialdeko ekoizle agroekologikoen produktuekin osatu dute eguneroko eskaintza, eta ehunka lagun pasatu dira abuztuaren 10etik 14ra haien jantokitik. Gotzone Sestorain elkarteko kideak nabarmendu duenez, helburu bikoitza dauka Habelarteren festetako sukaldeak: elkartearen finantziazioa, batetik, eta beste elikadura eredu baten erakuslehoizatea, bestetik.

FEMINISTEI ERRELEBOA HARTUTA

Pandemia aurretik, urteak zeramatzan Bilgune Feministak festetako sukalde antolatzen Leitzan. “Bazeuden txandetako taldeak sortuta, dinamika bat martxan, jantokiak ere bazuen arrakasta...”, dio Sestorainek. Pandemiaren ondoren, ez zegoen Gaztetxeko sukaldearen ardura hartu nahi zuen talderik, eta Habelarte sortu berria zegoela aprobeztatu, hutsune hori betetzea erabaki zuten bertako kideek. “Aukera ederra zen gure lana, ekoizten duguna, erakusteko eta elkarteari oihartzuna emateko, eta gure filosofiarekin bat eginez eskaintza osatzeko: tokiko produktuak, modu jasan-



garrian eginak...”, gehitu du elkarteko kideak.

Iazko festetako eskaintzan, aurreko urteetan sukaldean izandako menuari jarraipena eman zioten Habelartekoek. “Saiatu ginen ahalik eta produktu gehien bertakoak izan zitezen, eta bertan ez geneuzkan produktuak eskuratzeko, jasangarritasun irizpideak zituzten ekoizleengana jo genuen”, dio ekoizleak. Pizzak, ogitartekoak eta hanburesak eskaini zituzten iaz. Baina pizzak iaz emandako arazo batzuk medio, aurtengoan errazioekin ordezkatzeko erabaki dute. Egun bakoitzean errazio berezi bat izan dute eskaintzan, bertako abeltzainen abereena.

ESKAITZA INGURUKO
EKOIZPENERA MOLDATU DUTE

“Zer dugu batez ere Mendialdean? Galdera horri erantzunez osatu dugu aurtengo eskaintza”, azaldu du Sestorainek. Eta, zer dago, bada, Mendialdean? Abeltzaintza da nagusi inguru horretan, eta horregatik erabaki zuten aurtengoan eguneko errazioak sartzea. Lehen egunean, txerri saiheskia izan zuten; bigarrean, antxume errea; hirugarrenean, axuria; laugarrenean, txerrikumea; eta azken egunean, oilasko errea. “Haragi guztia Habelarteko ekoizleena izan da, txerrikumea izan ezik, Elizondoko abeltzain txiki bati hartu diogu hori”.

Guztira, Mendialdeko hamar bat ekoizle hartu du parte sukaldeko egitasmoan, haien produktuak eskainiz, eta mila otordutik gora eman dituzte. Jantokian ekoizle horien guztien datuak jarri dituzte panel handi batzuetan, herritarrek ezagutu ditzaten. “Azkenean, kultura bat sortzeko asmoa du jantokiak, herritarrak tripatik konkistatzeko modu bat da hau”. Ekoizleentzat haien produktuen salmenta koxxorra da, eta bultzada ematen die. “Eta, noski, antolaketaren ardura Habelarterena da baina proiektua herritarren eta beste eragileetako jendearen laguntzarekin ateratzen da aurrera. Guztira 60 lagunetik gora aritu dira txandetan”, amaitu du Sestorainek. ●

Zereal, lekale eta
bazka ekologikoak.

Salmenta zuzena

info@hazialdeko.eus
621 229 415

HAZIALDEKO
Naturako Eraketa Ekologikoa | Producción Ecológica Navarra



“ ”

Gakoa galdera da, galdera huts-hutsean

Rakel Pardo Perez

Zuk, nik eta inguratzen gaituzten pertsona guztiek partekatzen dugun oinarrira jo du Rakel Pardo Perezek (Urdazubi, 1995) bere lehenengo poesia-liburua ardazteko: gizatasunera. Zer esan nahi du gizaki izateak? Zerk ematen digu existentzia, eta zer egin dezakegu emana datorkigun horre-

kin? Norbanakoon arteko elkarreragina, taldetasuna eta inguratzen gaituen munduarekiko harremana dakartza mahai-gainera, besteak beste, *Egurats zabaletako izendaezinak* (Maiatz, 2024) lanak. Poemok jasotzen dituzten galderen jatorria ezagutzeko asmoz batu gara idazlearekin.

LEIRE VARGAS AINTZANE ARIZTEGI / ARGIA CC-BY-SA

Zure izenean argitaratu duzun lehenengo poesia-liburu osoa da *Egurats zabaletako izendaezinak*. Nola sortu zen lanaren lehenengo hazia?

Aspaldi hasi zen ibilbidea. Nafarroaren Egun batean Maiatz argitaletxeko arduraduna eta koordinatzailea den Luzien Etxezaharreta ezagutu nuen, eta hasierako momentutik hasi ginen poesiaz solasean. Nire poemak harekin konpartitu nituen, eta halako ibilbide bat hasi zen. Hasierako momentutik adierazi zidan sekulako konfiantza nire poesiarekiko, eta horren adierazle da Maiatz aldizkarian hasi zirela agertzen poema horiek. Duela dezente izan zen hori; hamar urte erraz.

Liburuaren proposamena beti egon da mahai gainean, baina garai hartan eta gerora ere ez nuen momentua zenik sentitu. Orain arte.

Eta lan honen sorkuntza-prozesua, berriz, nolakoa izan da?

Joan den urteko apiril inguruan elkartu nintzen Luzienekin, eta aipatu nion bazirela hor zenbait poema zeintzuk iruditzen zitzaidan indar gehiago bazutela edo zentzua hartzen zutela elkarren ondoan egonda. Ondorioztatu nuen akaso egon zitekeela hor liburu bat. Orduan hasi zen liburuaren proiektua. Beraz, poema gehienak aurretik sortutakoak dira, eta urte horretan zehar poema bakoitzaren lan-ketan zentratu zen: hitzak aldatzen, forma aldatzen... Poema bakoitzean sakontzen. Prozesuan ere sortu ziren poema berriak, baina gehienak aurretik idatzitakoak dira.

Prozesu bakartia izan da, edo bidelagunak izan dituzu hurbil?

Bi gauzak. Arras bakartia izan da, baina izan ditut lagunak hurbil, aholkatzen. Beharrezkoa da.

Elkarrizketa egiteko idatzi nizunean, lehen unetik eskerrak eman zenizkidan, liburua irakurtze hutsagatik, “lan zaila” dela diozulako. Mezu hori jaso al duzu kanpotik?

Bai, tira, hori beti ateratzen zait: jendeak liburua irakurtzen duenean, joera dut eskertzeko, ez dakit berria delako, horretan berria naizelako edo... Baina kontziente naiz irakurketa zaila dela. Uste dut jendea poesiaren beldur dela nolabait, halako mesfidantza bat ere baduela. Ulegarria da, lengoia poetikoak mundu abstraktu batera eramaten zaituelako, mundu berrietara, eta akaso urrun sentitzen ditugun munduetara. Uste dut edonork irakurtzen ahal duela poesia, baina lengoia poetikoan sartzeko behar dela epe luzerako halako konpromiso bat, poesia irakurtzen ere ikasi egiten delako. Nik ere izan dut halako bizipen bat: zenbait autore irakurri eta deus ere ez ulerti, so-



bera abstraktua delako, edo ez naizelako iritsi mezua ulertzer. Horrek eragiten du frustrazio bat irakurle bezala. Baina gero konturatu nintzen gakoa zela, justuki, irakurtzea: irakurtzea eta irakurtzea, poesia liburu bat behin irakurrita ez baituzu gehiegi harrapatuko; bi, hiru irakurraldi behar dira, beharrezkoa da benetan sakontzea.

Liburua “inoiz lurreratuko ez den hipotesia” dela dio poema batek; izan ere, ideiei tira egin eta pentsamenduan sakontzeko modutzat har litezke testuok. Zertarako darabil poesia *Egurats zabaletako izendaezinak-ek*?

Nik uste dut liburuak nahi bat duela funtsean: irakurlea bere giza baldintzaz jabetzea. Ariketa bat egitea eta hortaz kontzientzia hartzea. Baldintza hori zuzenki lotuta dago bizitzako zenbait espaziorikin, izendaezinak diren espazio horiekin zuzenean konektatzearekin. Hor badago ezintasun bat, espazio izendaezinak baitira, eta ondoriozko ezinegona, beti piztua, ezin garelako haiengana hurbildu.

Erranen nuke bizitzan badirela, izenburuak ere azpimarratzen duenez, zenbait espazio izendaezinak direnak, misterioarekin lotu izan direnak, eta badutenak berezitasun bat: bi indar topatzen ahal dira haiengan, erakartze-indarra eta uxatze-indarra. Erakartze-indarrak sortzen du bizitzeko gogoa, motorra, pasioa... Eta bideratzen du bizitzaren zentzua. Baina era berean badago uxatze-indar bat, noski, izendaezinak direnek ez baitute izendatuak izan nahi. Eta ondoriozko frustrazioa. Poema-liburu hau inguru horretan sortu da, galderen eremuan. Hor du zentzua liburuak: galderan. Gakoa galdera da, galdera huts-hutsean.

Hor badago paradoxa bat liburua definitzen ahal duena: galderak konstanteki bilatzen du erantzun bat, hori da galderaren esentzia, baina, era berean, galderak, hala izanda, ez du erantzunaren bitartez haren galdera izaera galdu nahi. Zentzugabea eman dezake, baina funtsezkoa da liburuaren testuinguruan eta galderen eremu honetan.

Helburua zentzu propio bat eraikitzea da, baina ez hainbertze zentzu bakarti batean, baizik eta kolektiboan baita ere.

Idazketa “kateak labainarazten dituen hasperen” batekin ere ei dator. Hitza eta ekintza eskutik baitoaz lan honetan: hitzak badu goteko eta

egiteko modua aldatzeko gaitasunik. Hori aurretik aipatutako espazio izen-daezinetara iristeko egiten den bidearekin dago lotuta. Izan ere, nahiz eta jakin badakigun bideok helmugarik ez dutela, horrek ez die zentzurik kentzen. Bizitzarekin gertatzen den bezala: hemen gaude, bizirik gaude, ez dakigu zertan ari garen sobera ongi, baina horrek ez dio zentzurik kentzen. Kontrara, eman egiten dio.

Horrek halako erronka bat ere suposatzen du, liburuak ez duelako baieztapenik eskaintzen, ez diolako bide itxirik ematen irakurleari. Gizakia ahul sentitzen da egoera horietan, eta gaur egun aise gehiago, dena bideratua edukitzeko beharra baitugu. Eta erronka da, baita ere, gelditasuna eta isiltasuna eskatzen dituelako. Kontziente izan beharra dago jarrera hori eduki behar dela. Hori da asmoa, jarrera horretara bideratzea.

Poemen formari begiratuta, eszena txiki, zehatzak baliatzen dira ideia orokorragoei zentzu topatzeko.

Nik uste, irakurlearentzat, inportantea dela konkretutik abstraktura joatea, eta abstraktutik konkretura. Lur bat eduki behar da poeman gero ideiera joan ahal izateko eta berriz itzultzeko; joko horretan mugitzen naiz beti. Lurra zapaldu behar da poema ulertzeko, gorputza sentitzeko bertan.

Bestalde, nik bizi ditudan eszenak dira, liburuak ardatza nigan baitu, baina uste dut ez dela nigan gelditzen, askapen-prozesu bat egon dela, mundua ulertzen saiatzeko.

Badago hor kolektibo bat, *gu*-tasun bat presente dagoena, ahots poetikoa barnebiltzen duena.

Gu-tasun horrek baditu bi ardatz nagusi: jatorri berdina dugula, eta bizitzari zentzua bilatzen diogula etengabe, izan modu kontziente edo inkontzientean. Hortaz, poema-liburu honek ez du hainbeste identitatea biltzen, baizik eta saiatzen da nolabait hura gainditzen, eta erantzun bat bilatzen identitateaz harago dagoen zerbitengan. Pertsonokin lotzen dudana joera da: norbanakoarekin, gizatasunarekin eta genealogia batekin.

Kolektiboak norberarengan duen eraginaz jakitun, bere burua eraiki nahi duen ahots bat ere bada liburuan. Idazteak ere badu horrekin zerikusia.

Dударik gabe, eta liburuan horrek badu sekulako garrantzia. Saiatzen naiz azpi-

marratzen kolektiboak gudan duen eragina eta guk kolektiboarengan duguna, alde bikoia baita. Hau zuzenki lotuta dago liburuan aski zentrala den beste gai batekin: mugarekin. Lehenbiziko poema solastatzen da mugaz lehenbiziko momentutik, erditze-momentutik, eta horrek suposatzen duenaz: haurra sortzen denean, munduak egin du bera, espazioaren bitartez gorpuztu da. “Espazioak definitu zaitu”, dio. Eta noski definitu zaituela, baina horrekin ez da aski: hori gertatzen da, baina gero, gorputz horretan dagoen izatea izate bilakatzeko, behar du bertzearen begirada. “Begiratua naiz, beraz, banaiz”. Horrek beteko du existentziaz izate hori. Izugarriko garrantzia du begiradak. Baina hor badago prozesu bat, haustura eta pertzepzio-aldaketa oso bat, helduarora iristen garenean; izan ere, badirudi bat-batean bertzearen begirada mehatxua dela, ezinegon-puntu bat sorrarazten du. Baina begirada, existentziaren hutsunea betetzen duena izanik, nola izango da mehatxu? Uste dut hor badagoela behar bat begiradaren poetika batena, lengoia berri batena. Hortaz idazten dut modu obsesiboan begiradaren inguruan.

“ ”

Uste dut jendea poesiaren beldur dela

Liburuko argazkiek, berriz, ingurura begiratzeko gonbita egiten digute.

Nola bururatu zitzaizun poema artean irudiak txertatzea?

Irudiena izan zen kurioa, izan ere, Lu-

zien izan zen hasiera baten proposamena egin zuena. Buruan gelditu zitzaidan ideia, eta liburu sortu zenean konturatu nintzen bazirela zenbait poema akaso astunegiak zirenak, eta pentsatu nuen argazkiak interesgarriak izaten ahal zirela horretarako: atsedenleku bat emateko poemen artean, ideien artean.

Argazki guztiak zuri-beltzean daude, baita azalekoa ere. Hori hasieratik hartutako erabakia izan zen, uste nuelako barne-mundua ez dela koloretan ulertzen, kontrasteen bitartez baizik, argi-jokoen bitartez. Halako koherentzia bat mantendu nahi nuen pentsamendu-maila horrekin.

Argazkiek ere zentzu poetikoa izan nahi dute liburuan, eta izan nahi dute leiho bat, poema irakurri eta ikusteko zer begirada dagoen ortzi-muga horretan.

Argazkiekin batera, poemen forma aldakorrek egitura ziklikoa eman diezaioke lanari: “pausekin” datozen poema laburrak, prosan idatzitako poemak, elkarrizketa-gidoiak... Bilatu duzun egituraketa da?

Bai. Bazuen helburu bat, justuki: liburuarekiko ezagutza bat piztea. Lehen erran dugu komeni dela liburu bat behin eta berriz irakurtzea, irakurtzen ari garena ezagutzeko. Uste dut irakurleari eskaini behar zaizkiola nolabaiteko ardatz edo ainguraketa-puntuak non sostengatu. Bizitzan gertatzen den bezala. Pertsona bat ezagutzen dugunean, formak zaintzen ditugu, ez gaude hain presente edukian. Baina gero, ezagutzan sakontzen dugun heinean, hor badago espazio seguru bat. Eta uste dut liburuarekin ere gertatzen dela: liburu





ezagutu, ireki, eta behin hor dagoela, orduan hasten ahal gara barneratzen irakurtzen ari garena.

Elkarrizketa-gidoiek nolabaiteko dialektika bat baliatzen dute liburuko gaiei sarrera emateko. Zergatik formatu hori?

Poesia elkarrizketa moduan ulertzen dut, eta maiz ateratzen ditut poemak elkarrizketetatik, formatu horretan bertan ere. Solasaldi bat izatea suposatzen du, eta bada irakurlea erakartzeko modu bat ere, nahi gabe bilatua dena, baina baduena zentzu guztia. Mugimendu dialektiko batean gauzak hurbilago sentitzen dira, eta hizkuntza-maila lagunartekoa-goa batekin, berdin. Beraz, modu bat da irakurleari esateko: "Zu hemen presente zaude, liburu honen parte zara".

Gorputza ere nabari zaio liburuari, ideiei lotua dagoela eman arren.

Hori da asmoa, gorputz horren bitartez irakurleak ulertzea hau ez dela liburuaren eta idazlearen arteko zerbait bakarrik, baizik eta berak ere ardura bat duela ematen den eduki horretan. Horrek erabat aldatzen du irakurketa.

“ ”

Bizi gara denbora guztian isiltasuna saihesten, batez ere ez omen delako zerbait produktiboa edo erabilgarria

Beraz, bilatzen duzu irakurleak sortzea bere esanahi-sorta propioa zure testuetatik abiatuta.

Bai, hori da liburuaren helburua: espazio bat eskaintzea irakurleak bere zentzua garatu dezan.

Hain zuzen, kontzeptuen birdefinizioak pisu handia du liburuan. Behin eta berriz azaltzen dira muga, lilura, basamortua, ezponda...

Erraten dute idazle bakoitzak baduela bere hiztegi propioa, bere unibertso propio, bere lengoaia. Nik kanpotik begiratuta batzuetan ikusten dut badela hala, badagoela halako hiztegi bat, harreman

nean dagoena akaso presentziaren ideia batekin: presentzia landu hiztegi baten bitartez, pertsona gorpuztu ahal izateko eta harremanaren kontzientzia hartzeko.

Isiltasuna da agian kontzeptu errepikakor horietan garrantzitsuena. Nola ulertzen dugu isiltasuna, eta zer da Egurats zabaletako izendaezinak-en?

Etengabe bilatzen dut isiltasunak toki zentrala izatea liburuan. Ez da asotsaren kontrako isiltasuna, baizik eta ideien edo pentsamenduaren hutsunearen isiltasun bat. Hortik hasten baita mugaren pertzepzioa, eta hori beharrezkoa da gero ezagutzaren mundura salto egiteko, mundu berriekiko konexioak irekitzeko. Hori da gakoa.

Uste dut gaur egun bizi garela denbora guztian isiltasuna saihesten, batez ere ez omen delako zerbait produktiboa edo erabilgarria. Denok dakigun zerbait da, baina gero ez dugu isiltasuna praktikatzeko ohiko bizitzan. Eta uste dut ate aunitz irekitzen dituela, nahiz eta ez diegun erabilgarritasun bat bilatu behar: isiltasuna, bere baitan, bada. Hor hasten da, eta hor akitzen. ●



Artea, zein preziotan?

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

TXALO PRODUKZIOAK

Ez da Hollywood, ez zinema, ez da handikeria, ezta utzikeria ere. Baina badu luxuaren zantzurik: arropa eleganteak, alfonbra gorria, horgei eurotik gorako sarrerak eta ehunka jarraitzaile.

Donostiako Aste Nagusia da eta hiria jendez eta ekintzez gainezka dago. Ostegun arratsalde honetan Antzoki Zaharrera hurbiltzea erabaki dugu 500 bat pertsonak, kalean doako hamaika ekintza egonda ere. Antzerkiak ez du jaietan lekurik, ez bada Donostia Kulturak paraleloki programatu duela. Kulturaren industriak artea merkantzia gisa erabiltzen du, antzerkia, beste arte diziplina batzuk bezala, kontsumora bideratzen du, eta elitista bihurtu, guztiontzako eskuragarri egotea galarazi eta ikuskera zein defini-

zio oker bat emateko. Egun bat lehenago antzezlan bera eskaini zuten Urnietan eta ikusleak zazpi euro ordaindu zituen. Donostian lau egunez egon da, eta eserleku gehiago beteta eta sarrera ia guztiak salduta. Ez dut uste langileak izan direnik irabaziak jaso dituztenak.

Antzerki obrak badu esandakoaren zertzeladarik. Film labur bat sortu eta zuzendu duen artista bati Hollywooden emango diote saria, eta AEBetara jasotzera joan da Kultura eta Ogasun sailburuekin. Sorkuntza da obra guztian pisu gutxien duen gaia, aipaturiko azken bi *monigote* horiek filma ikusi ere ez dutela abiapuntu hartuta. Dirua eta "herriari ekar diezaiokeen onura" baino ez dute kontuan. Horra hor kritika. Gizarte honetan, ordea, arteaz gain pertsonak ere

merkantzia gara eta Hollywooden glamour eta luxu artean emakumearen salerosketa ematen dela ere azaleratu dute, laugarren pertsonaia akonpainamendurako emakume bat izanik. Kasu honetan kritika ez da nabarmena izan, ordea, eta normalizat hartzeko arriskua ikusi dut.

Egilearen erabakirik ederrena istorioaren kokalekua iruditu zait: ikuslea ez da inoiz Hollywooden kokatuko, periferian dagoen motel *kutre* batean baizik. Industria erraldoi horretan film laburrak hartzen duen lekua izan litekeena, metafora antzeko bat. Hartzaila ikuspegi horretan kokatzen du, politikariez barre egitera gonbidatu eta artea baloratzera eramanaz. Ez, ordea, artearen birdefinizioa egitera eta baloreak aldatzera. Hurrengorako utziko dugu hori. ●

OSCARRA OSCARRENTZAT

AKTOREAK: Mikel Laskurain, Jon Plazaola, Oihana Maritorea eta Ane Gabarain.

PRODUKZIOA: LaMandanga Producciones, Txalo Produzioak

NOIZ / NON: martxoaren 2an, Donostiako Antzoki Zaharrean.



LIBURUA

Ez da izenik agertzen, inon



TXALPARTA

JOSEFA, NESKAME

ALAITZ MELGAR AGIRRE

ELKAR, 2022

BESTIAK LIBURUTEGIA

Josefa Agirre Etxeberria frankismo garaian neskame aritu zen emakumeetako bat izan zen. Hamalau urterekin deserriratu ondoren, bizitza osoan zehar bizilekuz aldatzera derrigortuta egon zen, bereak ez ziren beharrek gidatuta. Ez da harritzekoa, beraz, sistema patriarkal eta kapitalistak Josefaren ibilbidea ikusezin egin digula orain arte. Baina nola aitortu arrastorik utzi ez duen bizitza bat? Alaitz Melgar Agirre, haren biloba, aldendu egin da historiografia hegemonikotik amamaren biografia erdigunera ekarri eta jasandako zapalkuntzez hausnartzeko *Josefa, neskame* liburuan.

“Ez da izenik agertzen, inon”, diosku autoreak. Dokumentu ofizialetan ager-

tzen ez den bizitza hori berreraikitzeko, idazleak ikerketa zientifikotik harago joan behar izan du. Tene Mujika bekaren laguntza jaso zuen horretarako. Elkar argitaletxearen eta Debako udalaren kolaborazioa da beka eta, besteak beste, Iñigo Lopez Simon, Kattalin Miner eta Jon Alonsok jaso dute lehenago. Melgar hamaseigarren irabazlea izan zen 2023an. Bekaren helburua historia hurbila ez-fikziozko proiektuen bitartez jorratzea izanik, “espekulazio erreinuan” murgildu da Melgar, eta testigantzak eta intuizioa erabilia berreraiki du bizitza ikusezin oso bat. Ahozko historiara jo du eta aukera-baldintzak eta aukera-eremuak aztertu ditu gainazalean agertu ere egiten ez dena aurkitzeko.

Josefaren bizitza berreskuratu bitartean, askotariko baldintzek eta zeharkako zapalkuntzek osasun mentalean daukaten eraginaz ere gogoetatzen gara matza testu esperimentatzaile honek. Izan ere, osasun mentala ez da inoiz kontu isolatua. Idazlearen hitzetan, Josefa “kaiola batean sartu zuten betiko”, baina ahazturaren kaiola hori apurtzen saiatu da orain. Jarrai dezagun, beraz, oroimen ariketak egiten, ezkutatuta dagoena argitzen, isilarazia izan denari ahotsa ematen, eta historiaren bertsio osoago bat sortzen. Liburu hau babesgunea da bide hori ibili nahi dugunontzat, bestetasuna erdigunera ekarri nahi dugunontzat. ●



MUSIKA

Adore kontrolatua



MUSIKA HAMABOSTALDIA / IÑIGO IBÁÑEZ

DONOSTIAKO MUSIKA HAMABOSTALDIA

EUSKADIKO ORKESTRA:

Zuzendaria: J. Rohrer.

DONOSTIAKO ORFEOIA:

Zuzendaria: J.A. Sáinz Alfaro.

Bakarleriak: C. Reiss, V. Karkacheva, M. Schmitt, H. Müller-Brachmann.

EGITARAUA: Beethovenen *Missa Solemnis re maiorrean*, op. 123.

LEKUA: Kursaal Auditorioa.

DATA: Abuztuaren 23a.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Edizio bakoitzean bezala, aurre ere Euskadiko Orkestraren emanaldia izan dugu Musika Hamabostaldian. Oraingo honetan Donostiako Orfeoiarekin batera. Eta lan korapilatsu bat interpretatzeko, erronka handia: Beethovenen *Missa Solemnis re maiorrean op. 123*, hain zuzen ere. Monumentu sinfoniko bat da, bere modura fededun izan zen iraultzaile batek sortutakoa.

Meza hau osatzen duten bost atal handiek adierazkortasun indartsu eta grinatsua dute, zeinak obra hau benetakoa erronka bihurtzen duen edozein orkestra eta edozein zuzendarirentzat.

Beethovenek eta bere *Missa*-k ez dute kaskarkeria edo distantzia jasaten. Furtwängler bezalako beethoveniar batek ere, *Missa Solemnis* "Beethovenen lanik onena" zela uste zuenak, uko egin zion interpretatzeari: "Ezin

dut bere mezuaren handitasunari justizia egingo liokeen emaitzarik lortu".

Horrekin guztiarekin esan nahi dut *Missa*-ren interpretazioa bere kategoriaren eta sakontasunaren mailan lortzea lan ikaragarria dela. Eta egundoko zeregin horri aurre egin zion Euskadiko Orkestrak, Beethovenen espezialistatzat jotzen den Jérémie Rohrer zuzendari frantziarraren gidaritzapean.

Lehenik eta behin, esan behar dut lau bakarleri oso on topatu genituela, obrak eskatzen duen mailan egoten jakin zutenak. Chen Reiss sopranoa eta Maximilian Schmitt tenorea sasoi betean zeuden eta ahotsen homogeneztasun ona erakutsi zuten. Beren tinbreak ederki akoplatu ziren, adibidez *Christe eleison* eta *Qui tollis* zatietan, baina koruarekin eta orkestrarekin ere ondo akoplatu ziren. Era berean, bai Victoria Karkacheva mezoak, bai Hanno Müller-Brachmann baxuak

aktuzio akatsgabeak izan zituzten.

Horrek euren interpretazio-kalitatea erakusten du, Beethovenek ez baitie obra honetan *bravurazko* pasarterik eskaintzen, meza gehienetan bezala, bereziki Bach edo Mozarten mezetan. *Missa Solemnis*-en bakarleriak apalki osotasun handi baten parte dira.

Agian, bertsio honetan soinu bolumen handiegiko uneren bat izan zen, nahiz eta Rohrerrek berak ahaleginak egin zituen bolumenak arinduta –bereziki koruarenak– oreka bat lortzeko.

Nolanahi ere, xehetasun horiek gorabehera, Rohrerrek obra handi hau gidatzen jakin zuen, bere bost zatien bidez, etengabeko progresioan, baina gehiegikeria dramatikoetan erori gabe, eta hori zaila da.

Orfeoia, meza honi mesederik egiten ez zioten bolumenezko soberakinak alde batera utzita, zuzen aritu zen. ●

Etorkizuneko supermerkatua

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Etetik gertuen daukadan supermerkatuan lau gauza erostera sartu eta ordaintzeko ilaran nengoela konturatu nintzen, nire aurretik zegoen bezeroaren produktuetako bat ez aurrera eta ez atzera geratu zenean. Kutzako langileak ezin zion segurtasun-alarma kendu; hori egin gabe ezin barra-kodea, bip!, pasa; eta lankide bati abisatu behar izan zion, eta dut asmatzen traste honekin, ea zuk. Hiruzpalau minutu igaro ziren botilaren lepoari kateatutako izain magnetiko salatari askatzeko maniobretan. Libratu zuten azkenean: oliba-olio litro hark supermerkatuko atea legalki zeharkatu ahalko zuen.

Eta ni, nire artean: horrela gabiltza, bezaz. Lehen edari alkoholdun garestiei jartzen zizkieten tramankuluak orain egunero friji-fraja xumean erabiltzen ditugun botiletan. Bale, altu dagoela oliba-olioaren prezioa –iaz urte sasoi berean baino %62 garestiago; duela bi urte baino %100,4

garestiago-, baina hala ere, birjina estrari jarritako uztarri horrek, salneurrien gorabeheraz harago, bizi dugun garaiari buruzko mezu bat dauka gordea.

Nire ustez, erakusten du lagun/etsai kontzeptuak aldatzen ari direla saltokikate handien administrazio kontseiluetan esertzen den jendearentzat. Lehen, supermerkatua saiaten zen klase ertaineko familiak fronte guztietatik erasoka bereganatzen. Kupoiak, eskaintza bereziak, egin zaitez bazkide, utzi hemen –eta ez gauza igual-igualak saltzen dituen ondoko superrean– hil honetan bildu dituzun billete zimurrak. Etsai potentzialak berriz, beste nonbait ikusten zituen, adibidez litroak egiteko osagai bila sartzen ziren gazte kuadrilletan; edo kamioi bat gainetik pasa ondoren edukitzen den ibilerarekin pasilloetan barrena paseatzen ziren alkoholiko bakartien artean. Kontsumoaren terrorista horiei zuzentzen zizkien supermerkatuak bere arma pre-

bentiboak: jarri alarma ginebra, whisky eta vodka botilei, ez daitezela irten Ruffles poltsa bat pagatuta eta 90 euro pattar motxilan gordeta.

Oraindik gauzak gutxi gorabehera horrela dira, baina oliba-olio botila horri jarri dioten alarman etorkizuna ikusten da: supermerkatua jabetu da mundu geroz eta ezegonkorrago honetan asuntua ez dela honezkeroko territorio berriak konkistatzea, tropak bere mugetaraino atzeratu eta irabazi-margenak babestea baizik. Faktore ugari eraman dute ondorio horretara: gerraitzakian itxurarik gabe garestitutako produktuek, klase ertainaren amiltzeak, langileriaren pobretze etengabeak, edozer gauza salerosteko aukera digital berriek, Interneti esker lapurretara txikiak egiteko *know how*-a edonoren esku egoteak... Orain supermerkatuak nonahi ikusten ditu etsaiak. Bezero jatorrenaren atzean ezkutatu daiteke *vietcong* bat. Supermerkatua beldurtuta dago. STC enpresak egindako inkesta bati erantzuten, saltoki handietako buruzagien %70ek esan zuten zenbait produkturi alarmak kenduz gero, lapurretak “drastikoki” igotzeko arriskua sumatzen zutela.

Gainera, geroz eta jende gutxiago nahi dute kutxan bezeroei kobratzen, erosketak zerorrek eskaneatzen badituzu lan hori egiten zutenen nominak aurrezten dituztelako. Osagai guztiak mahai gainean daude, irudimena pixka bat astinduz gero, gauzen bilakaera aurreikus- teko: etorkizuneko supermerkatuan, ordaintzera joaten zarenean, alarmak desaktibatzeke artezilari baten laguntza bakarrik edukiko duzu. Eta segurata baten begiradapean irtengo zara –bakarrik noski, familia osoari *checkpoint* horretatik pasatzeak dakarren umiliazioa behintzat aurrezteagatik–, olio litroa urre likidoaren prezioan pagatuta. ●





Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diozu Bilboko Mbolo Moye Doole elkarteari. Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!



HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten

30 €

Bidalketa gastuak 5€.
Bidalketa doan 40€-tik
gorako erosketetan.